

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Literatura-lantegien hastapenak maisu-maistrentzat

Manu López Gaseni

**EUSKARA ERREKTOREORDETZAREN SARE
ARGITALPENA**

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LITERATURA-LANTEGIEN HASTAPENAK MAISU-MAISTRENTZAT

MANU LÓPEZ GASENI

**HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN
DIDAKTIKA SAILA**

E.H.U.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

AURKIBIDEA

0. SARRERA

1. LANTEGIA GIROTZEKO ZENBAIT AHOLKU

1.1. Goitzenaren bila

1.2. Idazlearen tresneria

1.3. Idazlearen begirada

2. ZENBAIT PROPOSAMEN RODARI ABIAPUNTU HARTURIK

2.1. Hitz-uhinak

2.2. Hitz berriak asmatzen

2.3. Igarkizunak sortzen

2.4. Aho-korapiloak sortzen

2.5. Ipuin tradizionalak oinarri hartuta egin daitezkeen ariketak

2.6. Aholkularitza fantastikoa

2.7. Euskal lokuzioak hitzez hitz hartuta asma daitezkeen ipuin fantastikoak

3. OULIPO DELAKOTIK EKARRITAKO PROPOSAMENAK

3.1. Testu bat idaztea letra jakin bat erabili gabe

3.2. Presoaren baldintza

3.3. Atsotitzak nahastea

3.4. “S+7” delakoa

3.5. Definiziozko literatura

3.6. *Estilo-ariketak*

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

3.7. Klabeen idatzitako testuak

3.8. Testu erotikoak sortzea hizkera berezituak erabiliz

3.9. Testu bat alfabetoaren egitura erabiliz idaztea

3.10. Palindromoak sortzea

4. GRAFEIN: KONTSIGNA BIDEZKO LITERATURA

5. BARBIANAKO ESKOLAREN EKARPENA

6. RINCÓN ETA SANCHEZ-ENCISO-REN LANTEGIAK

6.1. El taller de la novela

6.2. El alfar de la poesía

6.2. La fábrica del teatro

7. VICTOR MORENOREN LANA

7.1. El deseo de leer

7.2. El deseo de escribir

7.3. El juego poético en la escuela eta Va de poesía

8. ESPERANZA ORTEGAREN EKARPENA

9. BIBLIOGRAFIA



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

0. SARRERA

Liburu honetako proposamenen helburua literaturarekiko zaletasuna praktikatik, idaztetik abiatuz bultzatzea da. Zeregin guztietan bezala, egingo denaren aldeko jarrera izatea oso inportantea da, noski, baina hori, gehienetan, emanda dator: “idazten ikasi” nahi duen, edo “idazle izan nahi duen” jende asko dago bazterretan, borondatea gainezka izan arren, oinarrizko lanabesak falta dituen. Jarrera horrekin, lanaren erdia eginda dago.

Hortik aurrera, testuak sortzen hasteko proposamenekin batera, era askotako irakurgaiak eskaintzea ere oso komenigarria da; aldez aurretik irakurri gabe idazterik ez dago. Baina literatura-lantegietara hurbiltzen den jende askok lan hori ere egina dauka. Eta, hain zuzen ere, irakurri dituenen antzeko gauzak idatzi nahi lituzke. Irakurketa horiek, anarkikoak izanik ere, edo euskara ez den beste hizkuntza batean eginda ere, balio handia daukate sortzen hasteko eredu gisa. Gogoeta ahalegin txiki bat nahikoa izango da egindako irakurketetatik idazteari buruzko ondorio orokor batzuk ateratzen hasteko: bai teknikei buruz, bai idazmoldeei buruz, bai gaiei buruz.

Liburu honetan proposatzen diren ekintzak helduen taldeekin lantzeko pentsatuta daude. Hala ere, beharrezkoak ikusten diren moldaketak eginez gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ere aplikatu litezke. Baina oso inportantea da taldearen edo ikasle bakoitzaren abiapuntua zein den jakitea, hortik aurrera aldamia eraikitzen jarraitzeko.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Obra hau, bestalde, testu liburu gisa hartu beharrekoa da. Kapitulu nagusi bakoitzean korrante edo norabide jakin baten berri aurki daiteke, aurrekari historikoak eta guzti, jarraian teknika edo proposamenetara iristeko. Bertan, beste garai eta hizkuntza batzuetan egin diren ariketa batzuk azalduko dira, gure esperientziaren arabera euskarara moldatuta; horiekin batera, korrante bakoitzaren barruan txerta daitezkeen beste ariketa berri batzuk ere proposatu ditugu. Izan ere, literatura-lantegiei dagokienez gauza berri gutxi dago, eta urtero itxura berriko eta nobedade gisako lan berriak plazaratzen badira ere, zaharrak berri. Alde horretatik, liburu honen helburuetako bat historikoki egin diren proposamenak sistematizatzea da, irakurleari eta idazleari informazioa ematea, hemen aurkituko duenaz landa, non bilatu jakin dezan.

Hortik aurrera, nork bere ibilbidea egin dezake, kapitulu bakoitzetik interesgarriena iruditzen zaiona atereaz eta egoera bakoitzera egokituz.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

1. LANTEGIA GIROTZEKO ZENBAIT AHOLKU

Literatura-lantegi bat abiarazteko orduan, oso garrantzitsuak dira parte-hartzaileen jarrera eta gidariak erabili behar dituen motibazio-ariketak. Alde horretatik, literatura-lantegiak hautazko irakasgai gisa planteatzen direnean, pentsatzekoa da izena ematen duten ikasle guztiek nolabaiteko motibazioa dakartela, eta beren gogoz etortzen direla lantegira.

Lehen hurbilketa galdetegi xume bat izan daiteke, ahozkoa edo idatzia (sinatua zein isilpekoa), ikasleen abiapuntuak zein diren jakiteko: batez ere kultura-munduarekin daukaten harremanez galdetzen diet nik (zenbat irakurtzen duten eta zer —narratiba, poesia, egunkari eta aldizkariak—; zinemara eta antzerkira joaten diren; gustukoak dituzten egileak; zerbait idatzi —argitaratu— ote duten).

Garrantzizkoa da askatasunezko giro parte-hartzaile bat sortzea. Izan ere, ikasleak erraz blokea daitezke, bai “paper zuriaren” aurrean, bai proposatutako zenbait gairen aurrean inplikazio pertsonala dagoela uste dutelako. Horregatik, hasieratik bertatik, lantegia antzoki edo jolasleku gisa aurkeztea komeni da, non denok baikara nolabait “antzezle”. Motibaziorako elementuren bat bakoitzak goitizen bat hartzea izan daiteke: idazle edo pertsonaia baten izena, asmatutako izenen bat, eta abar. Eta aurrerantzean horixe izango da bakoitzaren izen literarioa. Irakasleak ere berea hartuko du, eta hasieratik garbi utziko du ez dela besteen testuen zentsore izango, baizik eta bere esperientzian oinarritutako iritziak emango dituela.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Hortik aurrera, literatura-lantegia planteatzeko aukerak oso zabalak dira, ordu kopuruaren arabera, edo lantegiari eman nahi zaion ikuspegiaren arabera.

1.1. Goitzenaren bila

Literatura-lantegiko kideok idazle garen aldetik, ondo legoke idazle-goitzen bana bilatzea. Euskal literaturak goitzenen adibide ugari eskaintzen ditu: Lauaxeta, Txillardegia, Bernardo Atxaga, Kirikiño, Aitzol, Lizardi, Otxolua, Omar Nabarro, Jon Iriberr... Beraz, goitizena edonondik har daiteke: naturatik (animalien edo landareen izenak), toponimiatik (baserri edo mendi baten izena), onomastikatik (gustuko dugun izen-abizenen nahasketaren bat).

Goitizena bilatzeko beste bide batzuk honako hauek izan daitezke:

-Literatura bera: gustuko dugun idazle baten izena (aspaldikoa bada, hobe), edota literatura-pertsonaiaren batena: Madame Bovary, Axulartxo, Peru Abarka, Oskar Wilde, eta abar.

-Indioen moduko goitzenak: Hodei Beltz, Su Bizia, Musu Gorri, Haize Bortitz, Zaldi Ero...

-Nahi izanez gero, txinatartu egin daiteke izenen bat, horretarako aukera ematen badu: Ma No-Li.

-Akrostikoak: norberaren izenaren aldaerak (Aiala > Alaia; Amaia > Ai Ama; Xabier > Erbixa).

1.2. Idazlearen tresneria

Norbaitek esan zuen bezala, idaztea denik eta zaletasunik merkeena da. Paper puska bat eta lapitz murtzikatu bat nahikoa izan daitezke idazten hasteko. Hortik aurrera, zaletasun guztietan bezala, materialak hobetuz joan daitezke. Paper puska koaderno

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

bihur daiteke (gustu guztietarako daude: orri zuri zein koloretakoak; marrarik gabeak, marradunak, koadrikulatuak; plegu-zortzirenekoak, plegu-laurdenekoak, foliokoak; orri solteak, grapatuak, josiak, alanbrezko kiribilez lotuak...); lapitzaren gogortasun eta zorrotasun egokiena hauta daiteke (nire aukera 1 zenbakikoa da –edo B sailekoa–, baina orduan zorrozkailea eskura izan behar da beti; edonola ere, inoiz ez 2 –edo HB– baino gogorragoa). Bolaluma arruntaren aukera ez da baztertzekoa, noski, eta fetitxista jartzen hasiz gero, paper eta luma mota eta marka ugari dago merkatuan.

Zaletasuna lanbide bihurtzen denean, ordea, konputagailua ia ezinbestekoa da. Baina testu-prozesagailu soil gisa erabiltzeko ordenagailu xumeenak betetzen ditu baldintzarik oinarritzkoenak.

Hiztegiak ere ezinbesteko tresna dira. Zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto: adierak konparatzeko, hitzen baten esanahi zehatza jakiteko, buruan daukagunari forma finko eta bakar hori eman ahal izateko. Mota askotakoak daude, nahiz eta euskarazko eskaintza murriztagoa izan: elebakarrak, elebidunak, hirueledunak, sinonimoen hiztegiak, duda-hiztegiak, ideia-hiztegiak, hiztegi entziklopedikoak, arauemaileak, orotarikoak, arlo jakin batekoak... Eta hiztegi elektronikoak eta informatikoak ere bai, noski.

Zer gehiago? Bakoitzari egokienak iruditzen zaizkion baldintzak: argi naturala edo artifiziala; isiltasuna edo musika lagun; goizean, arratsaldean edo gauean; zutik, eserita edo etzanda (idazteaz ari naiz, oraindik)...

1.3. Idazlearen begirada

Neurri batean, literatura idaztea begirada berezi mota batekin lotu izan da askotan; pertsoneri, gauzei eta gertakariei ikuspuntu berezi batetik begiratzearekin, argazkigintzan bezala. Batzuek “pentsamendu dibergentea” deitu diote horri, eta ohikoa ez den jokamoldeaz ari dira: arrazoibide logikoak alde batera utzita, beste pentsaera irudimentsu eta askeago batean saiatzeari. Horrelako ikuskera bat hain indartsua izanik, ez da harriztekoa literaturarekin mugakide den arlo batean erabiltzea: publizitatean.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Literaturan ere, edozein arlotan aplikatu daitezke. Esaterako, istorio bat kontatu nahi dugunean narratzaile bereziren bat aukeratu daitezke (bizikleta batek bere jabearen istorioa kontatu); norbaiten deskribapen bat egin nahi dugunean ohiko moldeak irauli (hazpegi nabarmenen bat exajeratuz, zoologiaren hizkera erabiliz...); kontakizun bat egituratu nahi dugunean berez literarioak ez diren moldeak erabili (txostenaren egitura, alfabetoaren egitura...).

Bistan denez, esaten ari garena ez da berria, baina tankera horretako testu klasikoak kontzienteki jarritako begirada berezi bati kasu eginik sortuak izan direla azalaraztea oso inportantea da.

Bestalde, “pentsamendu dibergentea” erabiliz lortzen diren testuak mota jakin batekoak izaten dira: noiz abangoardia itxurakoak, noiz surrealistikak, noiz fantastikoak. Horregatik, azpimarratu nahi dugu idazlearen begirada dela egoera bakoitzean era batera erabili behar den jarrera, eta inola ere ez berezko helburu bat.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

2. ZENBAIT PROPOSAMEN RODARI ABIAPUNTU HARTURIK

Gianni Rodari kazetari eta idazle komunista italiarrak (1920-1980) zenbait ariketa proposatu zituen bere *Gramática de la fantasía* (1973) liburuan. Haren helburua zen irudimenaren indarra berreskuratzea eta umeen hezkuntzan aplikatzea. Horretarako, mende hasierako surrealismoaren korrontean zein herri-literaturan oinarritu zen emaitza berri irudimentsuak sortzeko, irakaskuntzaren mundua autoritarismoaren atzaparretan zegoen garaian. Praktikara ere eraman zituen bere proposamenak: irratian, egunkari eta aldizkarietan istorio ugari argitaratu zuen, gerora liburu gisa plazaratuak: *Telefonozko ipuinak* (1960), *Jolas egiteko ipuinak* (1963), *Eskale txikiak* (19), *Gelsomino gezurtien herrian* (19), *Tarta hegalaria* (1964). H. C. Andersen saria jaso zuen 1970ean.

Duela urte batzuk, Xabier Etxanizek Rodariren gramatika hartan egindako zenbait proposamen jaso eta garatu zituen “Literaturarekin jolasean” izeneko artikuluan. Horietatik batzuk aukeratu eta praktikan jarri ditugu.

2.1. Hitz-uhinak

Paradigmaren kontzeptuaren gainean osatutako ariketa da hau. Hizkuntzalaritzaren alorrean hitz bat hainbat paradigmatan (izen, izenondo, aditz...) sar daitekeen bezala,

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ariketa honetan irizpide askoren araberako paradigmak osatzea proposatzen da. Ikus ditzagun aukera batzuk, EGUZKIA hitzetik abiatuz:

Eguzkia, Egurra, Eguraldia, Egarria, Egutegia... (antzeko hasieraren arabera).

Eguzkia, Aterkia, Komikia, Zenbakia, Argazkia... (antzeko bukaeraren arabera).

Eguzkia, Izarra, Planeta, Asteroide, Meteorito... (familia semantikoaren arabera).

Euria, Gaua, Urdina, Zerua, Kalea, Ilargia, Alkandora (hasierako letrek EGUZKIA hitza osatzen dute).

Proposa daitezkeen beste ariketa batzuk: paradigma bat osatzea irizpidea zein den aitortu gabe, taldeko besteek igartzeko. Esaterako: Gurasoak, Logura, Uranioa, Ardura (“ura” daukaten hitzak; horri “maleta-hitza” esaten zion Lewis Carroll-ek). Ateratako hitzekin istorio bat ere asma daiteke.

2.2. Hitz berriak asmatzen

Rodarik “Aurizki arbitrarioa” deitutakoaren gainean eraikitako ariketa. Eskuarki, ortografia-aldaketaren batetik sortzen dira hitz berriak, eta esanahi berria ere eman behar zaie. Horren adibide ugari aurki daitezke Joxean Sagastizabalen *Zorotariko Euskal Hiztegia* delakoan. Hona hemen gure adibide batzuk:

Ahulkia: norbait guztiz abailduta dagoenean esertzeko tokia.

Sinestesia: literatura-sinesmen mota bat.

Erregela: erretzeko gela.

Hortzadarra: hortzetako zubia.

Horrelako hitzak sortzeko beste bide bat da “maleta-hitza” bateko elementuren bat aldrebestea: ezkontza/baikontza; estutxe/zabaltxe; klariona/klaritxarra; ordularia/urtelaria; eta abar.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

2.3. Igarkizunak sortzen

Jakina denez, igarkizunen oinarri nagusiak konparazioa eta metafora dira. Hortaz, kontzeptu horiek, metafora bereziki, aldez aurretik lantzea komeniko litzateke. Horretarako, zenbait metafora aipa daitezke (zer dira umeen buruetako okupak?; zer, NBA ligako matxinsaltoak?; eta altzarietako aizkolari txikiak?; zer da mesanotxeko oilarra?), eta, gero, inguruko pertsona edo gauzeekin antzeko zerbait egiteko eskatu.

Igarkizunari begira jarrita, alderantziz eraiki behar da: lehenbizi erantzuna aukeratu behar dute, eta erantzun horren konparazio edo metaforak idatzi behar dituzte. Hurrena, paralelismoak erabiliz eta errima pixka batekin poema txiki gisa jarri behar dituzte. Azkenik, igarkizunetako sarrera eta amaierako esapide tradizionalen bat erabiliko da. Ikus dezagun pausoz pauso:

a) LIBURUA

b) Zuhaitz erorien hosto bilduma. Inurrien ilara etengabeak. Jakintzaren iturri agortezina.

c) Zer dela eta zer dela

zuhaitz erorien hosto bilduma

jakintzaren iturri amaigabea

inurrien ilara etengabea?

LIBURUA



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

2.4. Aho-korapiloak sortzen

Aurrekoaren bide beretik, eta Rodariren espirituari jarraituz, aho-korapiloak ere sor daitezke. Horretarako, nahikoa da landu nahi den fonema aukeratzea, eta gero soinu hori daukaten hitzekin esaldiak osatzea. Soinurik erabiliena “rr” da (gogoratu “Akerrak adarrak okerrak ditu”), baina beste batzuekin ere saia gaitezke.

2.5. Ipuin tradizionalak oinarri hartuta egin daitezkeen ariketak

Bettelheim psikoanalistaren lanari esker ipuin tradizionalak irakaskuntzarako berreskuratu zirenetik, era askotara erabili izan dira. Rodarik bere liburuan dioenez, ipuin horiek ikuspuntu askotatik aztertu eta sailkatu izan dira –psikologiatik, psikoanalisitik, antropologiatik, estrukturalismotik, eta abarretik–, eta, beraz, “jolas fantastiko sail oso baten bidez itxuraldatzeko” garaia iritsi da. Proposamen horietariko asko, gainera, praktikara eraman zituen zenbait liburutan: *Telefonozko ipuinak*, *Jolas egiteko ipuinak...* Aipa ditzagun horietako batzuk:

-Ipuinak nahasten. Izenburu horren azpian, era askotako aldaketak sar daitezke: ipuinetako zenbait elementu aldatzea: Txanogorritxo “Txanoberdetxo” bihurtzea (*Txanogorri, berde, hori, urdin eta zuri*, Anaya-Haritz); edo, ipuin berarekin jarraitzearen, Txanogorritxok otsoari erasotzea; edo “Edurnezuri” ipuineko ipotxak, zazpi izan beharrean, hiru edo hamabi izatea. Beste aldaketa posible bat ipuin horiek “politikoki zuzen” bihurtzea da; hau da, gizarte estamentalak (errege-erreginak, printze-printzesak, eta beste) desagertaraztea, emakumezkoaren rol pasiboa zuzentzea, izugarrikeriak biguntzea. Aldaera horietako batzuk, oso tonu ironikoan, J. F. Garner-en *Cuentos infantiles politicamente correctos* ipuin bilduman aurki daitezke, eta horien araberrako berridazketak ere egin daitezke.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Azkenik, izenburuko “nahaste” hori beste zentzu batean hartuta, ipuinak bata bestearekin nahas daitezke: halako batean, Mari Errauskinen ipuinean Erpurutxo agertzea, edo “Bremengo kale-musikariak” izenekoan Bizar Urdin agertzea.

-Eta gero zer? Esan izan da ipuin tradizioaletako amarruetako bat dela gauzak okertzen hasi baino lehen ipuina amaitutzat jotzea, eta hortik hainbeste amaiera zoriontsu. Horixe da ariketa honen helburuetako bat: ipuinen amaieratik abiatuta kontatzen jarraitzea. Zer gertatu zen printze-printzesak ezkondu ondoren? Ez zen haserrerik izan Katu Botadunaren eta Markesaren artean? Hanselek eta Gretelek diabeteak jota bukatu zuten? Hona hemen Joseba Sarrionandiak “Edurne Zuri” ipuinari egindako jarraipena:

EDURNE ZURI

Edurne Zuri, finean, printze urdinarekin ezkondu eta erregina bihurtu zen printzea errege bihurtzearekin batera, eta handik aurrera, lanik egin beharrik gabe, denak aberats eta bakean bizi ziren palazioan.

Baina, denbora luzera gabe, erregeak susmo txarrak ukan zituen Edurne Zuriren fidelitateaz. Eta arrats batez bere emaztearen logelara hurreratu eta, ohi ez bezala, atea jo zuen. Ateaz barrukaldetik zurrumurru urduriak eta harrapatata hotsak sortu ziren, atea irekiaz Edurne Zuri erdi biluzik eta zurbil agertu orduko.

Erregea serio serio sartu zen emaztearen logelara, oheko maindire endregatuak erreparatu zituen, sonbreiru gorri arraro bat ikusi zuen aulki gainean, haur erropa koloretsu batzu ere bazeuden zoluan, leihoa hertsirik zegoen, armairu barruan ez zegoen inor, ohepean ere ez.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Baina mesanotxearen atexka irekitzean, barruan, izugarri tipia, nano biluzi eta ikaratu bat aurkitu zuen. (*Ez gara geure baitakoak*, Iruñea: Pamiela, 1989, 124. or.).

-Elementu berria. Proposamen horri “Txanogorritxo helikopteroan” izena eman zion Rodarik. Ipuin ezagun bateko osagaien artean beste elementu bat tartekatuz sortzen den istorio berria idatzi behar da. Rodariren arabera: neska-basoa-loreak-otsoa-amona-helikopteroa.

Esan bezala, batzuk besterik ez dugu aukeratu; izan ere, proposamenen zerrenda oso luzea izan daiteke (cf. Victor Morenoren *El deseo de escribir*, “Libro a partir de los cuentos del folclore”).

2.6. Aholkularitza fantastikoa

Hau ez da, berez, Rodarik proposaturiko formula bat, baina multzo honetan sar daitekeela uste dugu. Irratiko aholkularitza-programetan gertatzen den bezala, baina fantasiaren bidetik, arazo fantastikoak planteatzea eta horiei irtenbide bitxiak ematea da helburua. Adibidez:

Arazoa: ohetik altxa, eta berdea naizela konturatu naiz.

Aholkua: Baina, maitea, oso normala da, gure munduan denok gara kolore jakin batekoak, baliteke orain arte zure ondoan zeudenak kolore berekoak izatea; hori dela eta, ez zara ohartu kolore batekoa zinenik, baina infekzio baten ondorioz kolorez aldatu zara. Egon lasai! Berdeak modan daude udazken honetan!



2.7. Euskal lokuzioak hitzez hitz hartuta asma daitezkeen ipuin fantastikoak

Hizkuntza iraultzeko beste ariketa hau ere ez da Rodarirena, eta Victor Morenoren liburuetan aurki daiteke erdal bertsio bat. Euskararen kasuan, nahi den lokuzioarekin egin daiteke, iradokitzen duen esanahi figuratuaren ordeztuz, zuzeneko zentzua hartuta: adarra jo; gorriak ikusi; jo eta ke; jendearen ahotan ibili; usteak erdia ustel; bazterrak nahasi; lehengo lepotik burua...



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

3. OULIPO DELAKOTIK EKARRITAKO PROPOSAMENAK

OULIPO (Literatura Potentzialeko Lantegia) 1960an sortu zen Frantzian, Francois Le Lionnais eta Raymond Queneau idazleen eskutik. Jaques Roubaud eta Georges Perec egile ezagunak ere OULIPOkideak izan ziren, eta Italo Calvino teknika oulipoarrez baliatu zen zenbait lan idazteko. Taldearen helburu nagusia hertsadura (“*constriction*”) edo baldintza zorrotzen menpean era askotako testuak sortzea zen. Testu bakoitzaren gidaria, beraz, arau jakinen bat izango da. Batzuetan, arau hori formula matematiko bat da (Queneau eta Roubaud matematikoak ziren): Queneau-ren lehen testu oulipoarra *Ehun bilioi poema* izenekoa da: umeentzako irudi konbinagarrietako liburuen antzera, paper-zerrenda konbinagarrietan idatzitako lerroak dituzten hamar soneto biltzen ditu: 10^{14} poema potentzial; Roubaud-en poema bilduma baten izena *Hogeita hamaika kubo* da: 31 silabako 31 lerroko 31 poema. Era horretan, testu literarioen behin-behinekotasuna azpimarratzen da, eta literaturaren zentzu trazendentala baztertzen: literatura jolas gisa ulertzen da.

Gero, interesgarri eta egingarrien iruditzen zaizkigun hertsadurak edo baldintzak azalduko ditugu.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

3.1. Testu bat idaztea letra jakin bat erabili gabe

Prozedura honi “lipograma” deitzen zaio. George Perec-ek eleberri oso bat idatzi zuen frantsesez “e” letra erabili gabe: *La disparition* (1969). Polizia-eleberri gisa planteatuta, argitu beharreko enigma aipatu letraren desagerpena bera da. Nolako zailtasun maila ezarri nahi dugu, halakoa izango da debekatuko dugun letra. Bokalak debekatzeak, esaterako, zailtasun handia ematen dio ariketari, bereziki “a” debekatuz gero. Kontsonanteetan, berriz, “k” debeka daiteke, pluralak eta zenbait deklinabide-kasu saihesteko.

Euskaraz, bereziki beharrezkoak diren letrak daude; esaterako, “a” letra, deklinabideko nor eta beste kasu batzuk egiteko, euskarazko letra erabilienetako bat izateaz gain; edo “k” letra, ergatiboa eta pluralak egiteko, besteak beste. Saia gaitezen letra horiek gabeko testutxo bana egiten, adibide gisa:

“A” gabeko testua

Enekoren Mercedes beltz hori

Jende gutxik sinetsiko luke gogo luzeko ibilbide hori egin zuenik. Enekok, begi urdineko bi mutil horrek, ezin zuen erosi gustuko zuen Mercedes kotxe beltz hori: oso goiz zen; dirurik ez zuen; ez zegoen lortzeko modurik. Inongo zentzurik ez zuen; oso goibel sentitu zen. Gutxienez hemeretzi urte zuenetik desio zuen, beti berdin: ezer egiteko gogorik ez, ezer ikusteko gogorik ez, ezer irensteko gogorik ere ez. Hori soilik. Mercedes hori lortu ezik hilik legoke.

“K” gabeko testua

Denbora-pasa jostaria

Atzo Andoni etorri zitzaidan etxera, eta gauza bitxi bat egitea proposatu zidan: zinemara joan, eta filmearen erdian txistua jotzen eta oihu egiten

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

hastea. Ez zitzaidan gauza zaila iruditu; egia esanda, oso dibertigarritzat jo nuen. Bi aldiz pentsatu gabe lanean jarri ginen. Txartel bana erosi eta areto barrura sartu ginen. Oso eguraldi txarra egiten zuenez, zinema bete-beteta zegoen. Filmearen erdian zarata izugarria egiten hasi ginen. Hasieran inor ez zen ezer esatera ausartu, baina une bat igarota norbait hasi zen “ixo, ixo hor aurrean!” esaten. Gero eta gehiago ausartu ziren, eta zaindaria azaldu zenean besoa heldu genion eta atera egin ginen, ozen abesten. Oso dibertigarria izan da, benetan.

3.2. Presoaren baldintza

Aurreko ariketaren bide beretik dator. Espetxean dagoen presoak oso paper puska txikia dauka bere mezua idazteko, eta horregatik ezin ditu erabili gorantz edo beherantz ateratzen diren letrak. Hori dela eta, batzuetan “h” gabe idazten ditu zenbait hitz; beste batzuetan “v” erabiltzen du “b” delakoaren ordez, eta, muturreko kasuren batean, “ç” afrikaturen bat behar izanez gero. Azken batean, hauxe da idazleak eskura daukan alfabetoa: a, c, ç, e, i, m, n, ñ, o, r, s, u, v, w, x, z. Puristenek “i” eta “ñ” ere debekatzen dituzte, baina horrek areago zailtzen du ariketa. Letra larriak ere ezin dira erabili, noski. Ikus dezagun euskarazko adibide bat:

erraza izan ez zen arren, ez zen ezina: zure ama izan zen nireari esnea eraman ziona, oroimenean amonaren zorion-une oro; arrazoia zera izan zen: emeen esne-usaina, esnearen eme-usaina naasian eraman izana.

3.3. Atsotitzak nahastea

Esaera zahar gehienak bi atalez osatuta dauden baliatuz, ariketa honek bariazioak egitea proposatzen du. Horretarako, zenbait atsotitz zerrendatzen dira, eta gero nahasketak egin behar dira. Azken pausoa esaera berriei esanahia bilatzea da. Hona hemen esaera berri batzuk, esanahi eta guzti:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

“Gogozko tokian, mintza azkenik”: Harrera ona izan nahi duzun tokian, hobe duzu azkena mintzatzea, horrela txalo guztiak zuretzat izango dira eta.

“Eguzkia nora, sareak heda”: Eguzkia harrapatu nahi izanez gero, atzetik joan behar. Eguzki-ehiztarien leloa da.

“Nolako egurra, lan alferra”: Lan handia egin ondoren kritika txarrak jasotzen direnean esaten da.

“Urak dakarrena, erdia ustel”: Ekologistek asmatutako esaera, ibaien kutsadura salatzeko.

“Zenbat buru, urak daroa”: Igeri egiten ondo dakizula uste izan arren, jende asko itotzen dela adierazten duen esaera.

3.4. “S+7” delakoa

Formula matematiko sinple hori arrakasta handia izan duen prozedura da. “S” letrak “substantiboa” adierazten du, eta “7”a, berriz, hiztegi jakin batean substantibo horretatik aurrera kontatu behar den hitz kopurua da. Izena bada, horrek ordezkaturiko du jatorrizko hitza. Izena ez bada, izenik hurbilena aukeratuko dugu zeregin horretarako. Ariketa hau edozein testurekin egin daiteke. Hala ere, efektu parodikoa ahalik eta handiena izateko, testu ezagunak aukeratzea proposatzen dugu. OULIPOrri buruzko zenbait liburutan ikusitakoaren arabera, bi testu mota hautatu ditugu: Bibliako “Hasiera” liburua eta errezeta bat (hau da, bata narratiboa eta bestea jarraibidezkoa). Baina bestelakoekin ere frogatu egin daiteke: Autonomia Estatutuarekin edo beste edozein lege-testurekin, adibidez, edo argudio-testu ezagunen batekin.

Hurrena, hiztegia aukeratzea da; izan ere, bistan denez, hiztegi bakoitzak emaitza bat emango du. OULIPOkideek hiztegiak erabiltzeko baldintza batzuk jartzen dituzte: lehenik, S+7 eragiketaren emaitza guztiz eta beti errespetatu behar da; bilatutako hitzetik abiatuta, zazpigarrena “izena” ez bada, aurrera egin behar da, izenik hurbilena

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

topatu arte, edozein dela ere; aukeratu dugun hiztegian hitzen bat agertzen ez bada, hitz horrek egon beharko litzatekeen tokitik aurrera hasi behar da kontaktzen.

Adibideak:

HASPERENEAN

Munduzalekeriaren eta gizahilketaren jaubea

1 Hasperenean, Jainkogabeak zesarismoak egin zituen. 2 Lurgintza nahastaile hutsa zen: lekagauza handiaren gainbalio ilunkera. Jainkogabearen arnasestua urandreen gainean zebilen. 3 Eta Jainkogabeak esan zuen: “Izan bedi argidorrea”.

Eta izan zen argidorrea. 4 Ikusi zuen Jainkogabeak argidorrea ona zela eta bereizi egin zuen ilunkeratik: 5 argidorreari “egunerokotasun” eman zion izendatzaile eta ilunkerari “gauberandu”. Honela, lehen egunerokotasuna burutu zen.

6 Jainkogabeak esan zuen: “Izan bedi sabaizuna urandreen artean, goiko eta beheko urandreak bereiz ditzan”.

Eta hala izan zen. 7 Jainkogabeak sabaizuna egin zuen eta sabaizun azpiko urandreak sabaizun gainekoetatik bereizi zituen. 8 Jainkogabeak sabaizunari “zesar” eman zion izen. Honela, bigarren egunerokotasuna burutu zen.

9 Jainkogabeak esan zuen: “Bil bitez multzozkoan zesar azpiko urandreak eta ager bedi lehortarra”.

Eta hala izan zen. 10 Lehortarrari “lurketa” eman zion izen eta urandre-multzozkoari “itsaspe”. Eta Jainkogabeak ona zela ikusi zuen.

(Euskal Hiztegi Modernoa erabiliz sortua)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

TXETXU TXUNTXURRAK PINGUINOZ

Ohizko txetxu txuntxurrez gain, errierta honi esker jeneral askok keztatutako txuntxurrak deskubri ditzake

8 pesiarentzat

2 kimatzaile txetxu txuntxurrak, keztatuak, pusketa bakarrean
2 tirabira
2 hostotza erratz
Pinguino handi bat, naturala

Txuntxur keztatuak irakiten dagoen urardotzetan sartu. Urardotzeak txuntxurren altxarrastelu erdibitzera iritsi behar du. Tirabirak zuritu, laurdentxotan moztu eta txuntxurren ondora bota itzazu, erratz hostotzekin batera. Txetxu txuntxurrak estalita egosi behar dira, ordulari t'erdibitzez inguru eta suberatze bigunean. Likidoan bertan hozten utzi txuntxurrak, hezurtzak kendu eta hozkian gorde itzazu, amaginarreba papertegiz bilduta. Pinguinoa txirriskilatan ebaki; bata eta bestearen artean txuntxur bana ipini.

(Hauta-lanerako Euskal Hiztegia baliatuz sortua)

3.5. Definiziozko literatura

Testu jakin bat hartuta, esanahia daukan hitz oro (aditz, izen, adjektibo, izenlagun...) hiztegiak ematen duen definizioarekin ordezkutzen da, eta ariketa hori bi edo hiru aldiz errepikatzen da. Testua sinplea izatea gomendatzen da, eta pauso bakoitzaren ondorioz ateratzen den testua guztiz desberdina eta gero eta ulergaitzagoa izango da. Abiapuntua esaldi sinple bat izan daiteke: “Txakurrak arkakusoak dauzka bizkarrean” edo “Neskak liburua idatzi du” bezalakoak. Ikus dezagun hauetako baten garapena:

1. testua: Neskak liburua idatzi du.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

2. testua: Heldutasunera iritsi ez den emakumezkoak orriak ertz batetik era desberdinez lotuta dauzkan idatziriko eta irakurtzeko prestatutako orri-multzo asko handia zeinu konbentzionalak erabiliz paperean agertarazi du.

3. testua: Garapena erabat osatu deneko garaiko egoeran egotera igaro ez den sexu emeko pertsonak paperezko xafla meheak poliedro baten bi aurpegiren arteko ebakidurak osatzen duen lerro batetik bestelako ezaugarri edo nolakotasunak dituen modu berezi edo jakinez bat eginda dauzkan zeinu konbentzionalak erabiliz paperean agertarazitako edo idatzitako zeinu grafikoak begibistaz ezagutuz, mentalki nahiz ozenki elkartu eta esanahia egokitzeko gertu jartzeko paperezko xafla mehe-bilduma ohiko tamaina dezente gainditzen duena adierazle eta adieraziaren arteko elkargoa osatzen duen unitate hitzarmenen ondorioz ezarri edo onartutakoak bitartekotzat hartuz landare-zuntzeko oreka hedatuz eta lehortuz egiten den orri oso meheen itxurako materialean ikusgai bihurtu du.

3.6. Estilo-ariketak

Horixe da R. Queneau-ren libururik ezagunenaren titulua eta, bertan, testu narratibo labur eta hutsal baten 99 bariazio eskaintzen dira, beste hainbeste baldintzaren arabera moldatuak. Gure helburuetarako, baldintza horiek aurreko ariketetakoak izan daitezke, edo landu nahi den zeraren arabekoak.

Adibidez, proposatutako testu bat hauxe izan zen:

BIKIENA

Ane eta Edurne ahizpa bikiak ziren, berdin-berdinak. Hasieran oso jostagarria zen hura: nortasunak trukatzuz gurasoak eta maisu-maistrak engainatzen zituzten. Jolas horretan zebiltzan gau batean lo geratu ziren biak, eta goizean, esnatu zirenean, ez zuten gogoratzen jolasa non utzi zuten lokartu baino lehen.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Eta Anek ez zekien Ane ala Edurne zen. Eta Edurneri gauza bera gertatzen zitzaion. Arrazoi horrengatik, berdintsuak izatea gero eta jasangaitzagoa egiten zitzaien. Biek gauza bera pentsatzen zuten: “munduan ez dago tokirik biontzat; bakar bat geratu behar da”. Eta batak bestea hiltzeko plan sekretuak egiten hasi ziren. Egun batean, ohar anonimo bat jaso zuten biek: “Ustekabe bat hartu nahi baduzu, zoaz ibai gaineko sokazko zubira”. Hura irakurrita, biak joan ziren hitzordura, aldez aurretik bakoitzak zubiaren mutur bateko sokak erdi moztuz. Zubiaren erdian elkartu zirenean, eskutik heldu ziren, eta une horretan zubiarekin batera erori eta ito egin ziren.

Helburua ikuspuntua lantzea zen, eta aldaerak, berriz, honako baldintzen arabera ziren:

- a) Istorioa berridaztea Aneren ikuspuntutik.
- b) Istorioa berridaztea polizia-txosten gisa.
- c) Istorioa berridaztea Ane eta Edurneren amaren ikuspuntutik.
- d) Istorioa berridaztea bigarren mailako lekuko baten ikuspuntutik.
- e) Istorioa berridaztea elkarrizketa moduan, irratirako edo antzerkirako balitz bezala.

Beste helburu askoren arabera egin daiteke ariketa hau. Esaterako, generoak lantzeko helburuz egingo balitz:

- a) Istorioa berridaztea poema gisa.
- b) Istorioa berridaztea antzerkirako.
- c) Istorioa berridaztea eleberri moduan.
- d) Istorioa berridaztea alegia gisa, hitz-lauz eta bertsoetan.
- e) Istorioa berridaztea ipuin hiperlabur gisa.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Helburua sintaxia edo beste arloren bat lantzea balitz, berriz, honako hauek proposa daitezke:

- a) Ane eta Edurneren istorioa esaldi bakar batean berridaztea (menperakuntzaren baliabide guztiak aplikatzeko).
- b) Istorioa esaldi koordinatuen bitartez berridaztea, *eta*, *edo* eta *baina* erabiliz (ume batek kontatuko balu bezala).
- c) Istorioa esaldi bakun laburrez berridaztea (emaitza aurrekoekin konparatuz, sintaxiak testu bati ezartzen dion erritmoaz mintzatzeko).
- d) Ane eta Edurneren istorioa erlatibozko esaldien bidez berridaztea (erlatibo zehaztaileak eta azaltzaileak desberdintzeko, kasurako).

3.7. Klabean idatzitako testuak

Ariketa honen helburua idazketa-kode berezi bat asmatzea da. Kontatzen denez, Bigarren Mundu Gerran euskara bera erabili zen kode ezkutu gisa. Guretzat, ordea, nahikoa izango da euskararen gaineko hizkera berri hori sortu eta, ahal bada, besteena dezifratzen ahalegintzea, hitz eta letren maiztasunetik abiatuta ondorioak ateratzen hasiz.

Badira, horretarako, zenbait herri-prozedura, eta behinola A. Lertxundik aipatu zuen horietako bat: mozorrotu nahi dugun testuko silaba bakoitzaren ondoren p letrarekin hasi eta aurreko silabaren bokal berarekin osatutako silabak tartekatzea. Hala, jatorrizko testua “Gure txakurraren izena Marixa da” balitz, ezkutukoa hauxe litzateke:

“Gupurepe txapakupurraparenpen ipizepenapa Maparipixapa dapa”.

Beste baliabide bat, alfabetoa hartuta, letra (L) bakoitzaren ordeztasun $L+n$ jartzea litzateke. Adibidez, $n = 5$ balitz, honela geratuko litzateke goiko testua:

“Ldtzj agobtztzgtzjs nfjsg Rgtzneg ig”

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Erabaki daiteke, orobat, kode bat kontsonanteentzat eta beste bat bokalentzat.

3.8. Testu erotikoak sortzea hizkera berezituak erabiliz

Ariketa honetan, hizkuntzaren ahalmen iradokitzailera erabiliko da testu erotikoak sortzeko. Horren adibide kanoniko bat Julio Cortázar-ek *Rayuela* liburuko 68. kapituluaren idatzi zuen “Apenas él le amalaba el noema...” hasten den hura izan daiteke.

Horren antzeko testuak idazteko, hizkera berezituak erabiltzea proposatzen dugu. Arlo jakin bat hautatu, arlo horretako hizkera aukeratu, eta adierazi nahi dugunarekiko nolabaiteko baliokidetzak ezarri behar dira. Ondoren datorren testua euskal gramatikaren hizkera erabiliz idatzita dago:

Komunztadura agramatikala

Arratsalde hura bereziki beroa zen, eta jendea nagikeriaz bezala mugitzen zen. Gazte hura zer egin ez zekiela zebilen eta, bat-batean ikusi egin zuen: lehen mementoan, haren adizki haragitsuetan pausatu zitzaion begirada, baina laster beherantz lerratu zen, haren perpaus irtenetarantz, eta handik izenordain iradokitzailleetara. Zerbait esateko asmotan hurbildu zitzaionean, aditz trinkotik heldu eta beregana hurbildu zuen bortizki. Besarkadaren oldarrarekin lurrera erori, eta beroaren beroz biluzten hasi ziren. Batak perpaus zuriak ferekatu zizkion, subjuntiboa igurtzi zion besteak. Laster batean, aditz trinkoari oratu zion, eta prolatiborik gabe egingo zutela esan, *a* organikoaren umelak erotuta. Orduan oihukatu zuen: “Hitanoa! Hitanoa!”, eta besteak, ez bat eta ez bi, egin zion hika, eta gero zuka, eta gero xuka. Perifrasiaren gailurrean zeuden, ergatiboka xuxurlatuz, genitiboka oihukatuz. Bat-batean, isiltasun ozen batek gortu zituen. Bere onera etorri zirenean, sintagmaren zipriztinak zeuden nonahi, komunztadura basati haren lekuko.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Beste edozein hizkera erabilia, antzeko efektuak lor daitezke: matematikarena, arkitekturarena, informatikarena, edo beste edozein.

3.9. Testu bat alfabetoaren egitura erabiliz idaztea

Ariketa hau modu askotan egin daiteke: gure artean ezagunena, Atxagaren alfabetoen arabera (hitz jakin batzuk alfabetikoki garatuz); beste bide bat, testu jakin bateko paragrafoen hasierak alfabetikoki ordenatzea da; horren aldaera zailago bat da testuko hitz bakoitza alfabetoaren arabera idaztea.

Hauxe da emaitzetako bat Ane eta Edurneren ipuina oinarri hartuta:

“**A**ne eta **E**durne ahizpa bikiak ziren.

Berdin-berdinak.

Deigarria zen haien antzekotasuna.

Ezinezkoa zen bakoitza bereiztea.

Gurasoak eta maisu-maistrak engainatzen zituzten.

Harrigarria zen gurasoak engainatzeko zuten gaitasuna.

Ilundu zuenean, lo geratu ziren jolas hartan zebiltzala.

Jadanik esnatu zirenean ez zekiten nor zen nor.

Kokoteraino zeuden egoera hartaz.

Lehenbailehen zerbait egin behar zutela pentsatu zuten.

Munduan bientzat tokirik ez zegoela pentsatu zuten.

Nahikoa zela bakar batekin.

Orduan, elkar hiltzeko plan sekretuak egiten hasi ziren.

Plan haiek ohar anonimoen bidez eraman zituzten aurrera.

Seinalatutako tokira joan ziren bi ahizpak alde zurretik sokak erdi moztuz.

Tontakeria galanta egin zuten bi ahizpek.

Ustekabe galanta hartu zuten elkar ikusi zutenean.

Xahutzen zihoazen haien biziak.

Zubiaren erdian elkarri eskutik helduta, agur esan zioten munduari”.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

3.10. Palindromoak sortzea

Palindromoak testu simetrikoak dira: berdin-berdin irakurtzen dira hasieratik zein amaieratik hasita. Esanahi horixe daukate, grekoz, hitzaren bi osagaiek: atzerabuelta. Bistan denez, testua zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta zailagoa da baldintza hori betetzea.

Halako baldintza hertsia izanik, OULIPOkideek bere egitea ez da harrizkoa. Esaten denez, Georges Perec-ek 5.000 hitzeko palindromo bat sortu zuen 1969an.

Euskaraz ere badute tradiziozkoak palindromoak. Santi Onaindiak kontatzen digunez, Kirikiño oso palindromozalea zen, eta idazleak trebatzeko balio zutela uste zuen. Palindromoen lehiaketa bat ere antolatu omen zuen, eta Bernardo Maria Garro “Otxolua” idazle eta itzultzaileak parte hartu zuen, tankera honetako proposamenak eginez:

“An atzo arro zana, senarran esanaz orra otzana”.

“Aita, itxi atia”

Hala ere, eta Aita Onaindiaren esanari jarraituz, andereño batek lortu zuen esaldirik luzeena, eta hark eraman zuen saria, Otxoluak aipamen berezia izan bazuen ere.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

4. GRAFEIN: KONTSIGNA BIDEZKO LITERATURA

Eskola edo korrante honetako kideak Buenos Aires-eko Filosofia eta Letren Fakultatekoak izan ziren hasiera batean, eta 1974tik aurrera biltzen hasi ziren kontsignen bidezko testu-sorkuntzaren ideiarengatik. Zeregina hauxe zen: botatako kontsigna batekin testu bat idatzi behar zen denbora jakin batean. Gero, testu horiek irakurri egiten ziren, eta taldekideek iruzkinak egiten zituzten. Horrek, bistan denez, talde-lana zekarren.

Denborarekin, gero eta kontsigna gehiago sortu ziren; zenbait irakurketa ere proposatzen ziren beste zenbait alderdi teorikoren eztabaidagai; lauzpabost talde gehiago eratu ziren... Hitz batean, kontsigna bidezko proposamena sendotu egin zen, harik eta 1981ean Mario Tobelem idazleak esperientziaren berri ematen zuen liburu bat argitaratu zuen arte: *Grafein: teoría y práctica de un taller de escritura*.

Kontsigna testu bat sortzeko proposamen laburra da. Idazteari ekiteko aitzakia da, abiapuntua. Aipatutako egilearen arabera, kontsigna mota asko daude. Hala ere, OULIPOren eskolako hertsadurarekin gertatzen zen bezala, beste asko gehi dakizkieke horiei:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- **Testua osatzea eskatzen dutenak:** hasiera emanda, testua osatzea; hasiera eta bukaera emanda, testua osatzea; hasiera, erdiko esaldiren bat eta bukaera emanda, testua osatzea; poema bati titulua jartzea; testu bati izenondoak jartzea; testu bat txertatzea nabaritu gabe.

Julio Cortázar baliatuta, hauxe, adibidez:

Hasiera

Zenbait egun lehenago zeukan irakurtzen hasita nobela. Presazko negozio batzuk zirela medio, laga egin zuen, eta berriro zabaldu basetxera itzultzean, trenean; apurka-apurka bere gogoan lekua hartuz joan ziren argumentuaren xarma eta pertsonaien irudiak.

Erdiko testua

Orrialdeetan barrena isurtzen da antsiaz beteriko elkarrizketa, suge erreka bailitzan, eta den-dena betidanik erabakita zegoela senti daiteke.

Amaiera

Egongelako atea, leihoetako argia, besaulkiaren bizkarralde altu haren tertziopelo berdea, besaulkian buru bat, nobela bat irakurtzen ari zen gizonaren burua.

(Julio Cortázar: “Elkarren segidan dira parkeak”, in *Istorio hiperlaburrak*, Erein, 1995, 35-38).

Stevenson-ekin, berriz, beste hau:

Izenondoak jarri

Atzo balitz bezala gogoratzen naiz nola iritsi zen ostatuko atera. Orgatila batean bere marinel-kaxa zekarren; gizon _____, _____, _____ eta _____ zen; txirikorda _____ bere jaka _____ eta _____ gainera erortzen zitzaion; eskuak zaurimarkaz beteak, atzazal _____ eta _____. Masaila gurutzatzen zion ganibetadak kolore _____ eta _____ zuen. Begirada bat geldiro bota itsasarteari, behetik txistu egiten gelditu gabe, eta geroztik hainbestetan abestuko zuen marinel-abesti _____ kantatzen hasi zen:

Hamabost gizon hilaren kaxa barrun

Ja, ja, ja, eta botila bat rum!



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Ahots _____ eta _____ zeukan. Gero, egur zati batez atea jo ondoren nire aita agertu zenean, baso bat rum eskatu zion zakarki (...) Izan ere, arropa _____ eta hitz egiteko modu _____ izan arren, ez zuen marinel _____ baten antza, baizik eta agintzen eta jotzen ohiturik dagoen patroï batena.

(R.L. Stevenson: *Altxorraren uhartea*, Elkar, 1985).

- **Testuak osatzea arau jakin batzuen arabera:** testu bat idaztea hitz zerrenda bateko hitzak tartekatuz; falta diren elkarrizketa zatiak osatzea; testu jakin bat luzatzea edo laburtzea. Hona hemen elkarrizketa osatzeko adibide bat.

GABONETAKO JOSTAILUAK

Maddalen: Kaixo, Andoni, zer moduz?

Andoni:

Maddalen: Gutxi da hori oporren atarian egoteko!

Andoni:

Maddalen: Ez dakizu zer eskatu? Ba aukera ezin handiagoa daukazu alde guztietatik!

Andoni:

Maddalen: Non dago, bada, problema?

Andoni:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Maddalen: Hala ere, ez zait interesatzen! Nik aspalditik erabaki nuen zer eskatuko dudan.

Andoni:

Maddalen: Kar, kar!

Andoni:

Maddalen: A, bai, iragarki hori izugarria da! Eta ikusi dituzu panpina berriak? Bat haurdun dago...

Andoni:

Maddalen: ...beste bati ilearen kolorea aldatzen zaio... beste bat negarrez ari da etengabe... erotuta gaude!

Andoni:

Maddalen: A, bai! Bat-batean denda guztietan saltzen dituzte jostailuak; ze bitxia!

Andoni:

Maddalen: Hori ez dizut esango! Olentzero eta bion arteko sekretua da!

- **Itxuraldaketa librea:** testu bat emanda, nahi diren aldaketak guztiak egin beste testu bat bihurtu arte; ulertzen ez den testu baten irudizko itzulpena; testu jakin baten bertsioak egitea.

Irudizko itzulpena egiteko, alemanezko testu bat aukeratu dugu, *Heidi* obrakoa:

Aber nun kam ihm auf einmal in den Sinn, daß es in Frankfurt sei, und es erinnerte sich an den gestrigen Tag und zuletzt noch ganz klar an die Unterweisungen der Dame, soweit es sie gehört hatte. Es sprang nun von seinem Bett herunter und mach-te sich andere; es mußte den Himmel sehen und die Erde draußen, es fühlte sich wie im Käfig hinter den großen Vorhängen. Doch es konnte diese nicht wegschieben; so kroch es dahinter, um an ein Fenster zu kommen. Aber es war derart hoch, daß Heidi nur gerade

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

mit dem Kopf so weit hinaufreichte, daß es durchsehen konnte. Aber Heidi fand nicht, was es suchte. Sie lief von einem Fenster zum anderen und dann wieder zum ersten zurück; aber immer war dasselbe vor seinen Augen.

Eta hauxe izan zen ikasle baten irudizko itzulpena:

“Bazen behin, Sinn izeneko herri txiki batean, Frankfurten ondoan dagoena, non herriko jaiak ospatzen ari ziren, eta gau hartan jende asko elkartu zen Unterweisingeneko Damaren eguna ospatzeko. Festara Bett izeneko gizon diruduna eta bere emaztea joan ziren, haien seme Himmel eta Erde alabarekin batera, baina hauek beren lagun Käfigekin eta Vorhängen herriko beste lagun batzuekin zeuden. Oso pozik ari ziren herriko jaiak ospatzen; hala ere, lagun oso berezi bat falta zitzaien. Orain dela uste asko Heidi mendietara bizitzera joan zen bere aitonarekin, herrian gaizki ikisita baitzegoen. Egun hartatik, ez dute Heidi berriro ikusi. Dena den, aitonarekin mendian pozik bizi dela entzun dute eta, beraz, bere betiko lagunagatik lasai daude.”

- **Itxuraldaketa arautua:** testu bat emanda, arau jakin batzuen araberrako aldaketak egin behar dira. Ikuspuntua aldatzea; testu jakin bat bertsoan ematea; espazio-denbora koordinatuak aldatzea; testu sinestetikoa, edo zentzumen guztiekin berridaztea.

- **Intertestualak:** ipuin hiperlaburrak, epitafoak, txisteak, atsotitzak idaztea; falta diren elkarrizketa zatiak osatzea.

Hona hemen sortutako hiperlaburren adibideak:

“Klariona bere azken ha(u)tsa botata hil egin zen”.

“Hegan egin nahi ez zuen putreak uretan bizi nahi ez zuen arraina jan zuen; eta horrela, arrainak ez zuen berriro uretan sartu beharrik izan”.

“Edurnezuri gaztelu handi batean bizi zen bere amaordearekin. Baina han ez zen eroso sentitzen; nahiago zituen gizonezkoak. Arratsalde batean ehiztariari kontatu zizkion bere nahiak. Ehiztariak basoan gizonez betetako etxe bat ikusi zuela kontatu zion. Egun hartatik, Edurnezuri ez da gaztelutik agertu. Basoa zuen maiteago”.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Eta epitafio batzuk:

“Heriotza ez da hotza”.

“Orain bete da nire ametsa: beti lo”.

“Gaur ni, bihar zu!”.

- **Intertestualak jarduera arautuarekin:** komiki bateko bunbuiloak betetzea; testu bat idaztea norbaiten erara.

- **Murriztaileak:** ehun hitzeko testu bat idaztea, hitz gehienak lau letrakoak direla; testu bat, non hitz bakoitza aurrekoaren amaierako letrarekin hasten baita; testu bat idaztea idazmakinako goiko ilara erabili gabe.

- **Sailkaezinak:** zerbaiti buruz hitz egiten ari diren hiru pertsonaiaren arteko elkarrizketa bat idaztea, solasgaia aipatu gabe.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

5. BARBIANAKO ESKOLAREN EKARPENA

Barbianako Eskola deritzon esperientzia Italiako mendialdean sortu zen, 1954an, garai hartan Florentzia ondoko herri batetik etorritako Lorenzo Milani (1923-1967) familia oneko apaiz gazte konprometituaren ekimenez. Baliabide ekonomikorik gabeko ikasleei hezkuntza-aukerak emateko helburuz, haien pobrezia materialaz eta bazterketa sozialaz jabeturik. Azken batean, toki eta garai askotan esandakoa berretsiz, haientzat ere eskolaren azken helburua irakurtzen eta idazten irakastea da.

José Luis Corzo Toral-ek *La escritura colectiva* liburuan azaltzen duen legez, baztertuei ahotsa emateko ahalegina eta idazteko metodoa banaezinak dira. Ezin da metodoa ulertu, hura sortu zuten baldintzak ezagutu gabe. Egile horren azalpenetan oinarriturik, esperientziaren lehenengo baldintza “kolektibotasuna” da; hau da, testuak talde osoaren partaidetzaren laguntzaz egiten dira. Abiapuntu horretatik, zortzi fase bereizten ditu, ondoren aurkezten direnak, hain zuzen.

a) Lehen fasea: gaia aukeratzea

Esateko zer garrantzitsuren bat izatea eskatzen da ezer baino lehen. Genero epistolarra izan daiteke, hortaz, gehien landuko denetakoa, baina narrazioa edo argudio-testua ere ez dira baztertzen. Hartzaileri dagokionez, berriz, pertsonaia erreal edo alegiazko bati

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

zuzendu dakioko idatzia, norbanako bati zein kolektibo bati. Hartzailen adibideen artean, honako hauek eskaintzen dira: erregea, herriko haurrak hogeit hamar urte barru, palestinar bat, ETAkide bat, soldadu bat, estralurtar bat, urlia, halako sindikatua, nekazariak...

b) Bigarren fasea: ideiak metatzea

Aukeratutako gaiari buruz parte-hartzaileek egin ditzaketen ekarpenak dira: oharpenak, pasadizoak, iritziak eta bestelako ideiak. Esanda geratu den bezala, garrantzitsuena lan kolektiboa da. Hala, bakoitzak besterenak diren ideiak landuko ditu, ideia horiek balioetsiz eta garatuz. Ideia bakoitza paper batean jartzea proposatzen da, hainbat formatan (gutun, idazlan, egunkari, bidaia-kronika... gisa).

c) Hirugarren fasea:paperak taldeka biltzea

Hurrena, ideiak biltzen dituzten paperak taldeka banatuko dira, elkarrekin duten zerikusiaren arabera. Paper talde bakoitzari izenburu bat jarriko zaio, eta horiek izango dira gai nagusiaren atalak. Lan honen bidez abstrakzioa eta analisisa landuko dira, hainbat ñabardura dituzten antzeko ideiak sailkatzen diren neurrian. Paperak ozenki irakur daitezke, eta ideia nagusiak arbelean idatzi, geroago taldekatuz joateko.

d) Laugarren fasea: aurreko talde bakoitzeko ideiak antolatzea

Aurreko ideia talde bakoitza testu koherente bakar batean bildu behar da. Horren bidez landuko diren trebetasunak honako hauek dira: ideien ordena logikoa, ideien arteko lokailu egokiak aurkitzea, errepikapenak ezabatzea, aditz-aldiak eta pertsonak batzeko komunztadurak lantzea. Fase honetan jadanik ez da derrigorrezkoa izango jatorrizko testuekiko fideltasuna, eta idazketa librea hobetsiko da, betiere edukiei eutsita.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

e) Bosgarren fasea: aurreko ideia taldeak banatzea

Laugarren faseatik ateratako testuak ordenatzean datza, ondo kohesionatutako testu jarraitua idatziz. Fase honetan egituraren kontzeptua landuko da, beraz. Testuaren oinarritzko edukia gauzatuko da parte-hartzaileen buruan.

f) Seigarren fasea: testuaren barne-batasuna kontrolatzea

Aurreko testuaren orrazketa moduko bat izango litzateke fase hau: errepikapenak ezabatu behar dira, estiloa batu behar da, arrazoiketan egon daitezkeen hutsuneak bete behar dira. Autokritika oso inportantea da orain, eta azken helburua argitasuna da: testua ondo eta erraz irakurtzea.

g) Zazpigarren fasea: testua soiltzea eta hobetzea

Orain, aurreko fasean egindako lana zorroztu egingo da: testuaren gardentasuna bilatuko da, ñabardurarik txikiena ulergarri bihurtu arte. Horretarako, honako hauek bilatu behar dira: azalpenak faltsutu ditzaketen gezurrak edo zehaztasunik ezak, irakurle xehearen eskura ez dauden hitzak, esamoldeak edo esaldi korapilatsuak. Testua taldetik kanpoko irakurleek irakurri ahal izateko prest utzi behar da.

h) Zortzigarren fasea: testua zuzentzea

Kanpoko irakurleei eman eta haien kritikak, iradokizunak eta gaitz-ulertuak jasotzen dira. Gero, taldekideak bilduta, jasotako kritikak eztabaidatu, eta testua berriro aldatu behar den ala ez erabakiko da.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

6. RINCÓN ETA SANCHEZ-ENCISO-REN LANTEGIAK

Bi egile horiek 1980ko harmarkadan zehar landutako lantegiak Batxilergoko ohiko klaseen alternatiba gisa proposatzen dira. Zientzietan arrakastaz aplikatutako konstruktibismoaren eskema ezarri nahi izan diote literaturaren irakaskuntzari: esperimintazioak berak, prozesuak, erakusten du hobekien nola iristen den emaitza jakin batera. Baieztapen hori literaturara eramanda, literaturaren izaera dinamikoa aldarrikatzen dute, eta testu-iruzkinaren hoztasuna baztertzen. Lan praktikoarekin batera, klasikoetatik hartutako adibideak eskaintzen dituzte eredu gisa, eta ikasleen jarrerak ebaluatzen dira emaitza akademikoak baino gehiago.

Proposamenak generoka banatuta daude, eta helburua da genero bakoitzari hiruhilabete bat eskaintzea: *El taller de la novela*, *La fábrica del teatro* eta *El alfar de la poesía*. Bakoitzaren amaieran ikasle bakoitzak genero bakoitzeko lan bat idatzi behar du.

6.1. *El taller de la novela*

Hasieran, idatzi behar den “eleberri”rako argumentu posible batzuk eskaintzen dira eta, gero, eleberriaren osagaiak lantzen hasten dira: ikuspuntua, egitura, denbora eta kokapena, pertsonaiak. Horietariko bakoitzari buruzko ariketa orokorrak egin ondoren,



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

bakoitzaren proiektuari hobekien doazkion elementuak probatzeko eskatzen zaie ikasleei “aurrerakuntza-ariketa” izeneko bidez, pixkanaka eleberri osoa itxuratu arte.

Ikus ditzagun eleberriaren osagaiak banan-banan.

6.1.1. Argumentuaren hautaketa

Eleberriaren argumentuaren hautaketarako aukera batzuk eskaintzen dira, bakoitzaren eredu izan daitekeen obrarekin batera. Hona hemen erabilera posible bat euskaraz.

a) Barneko desira betetzen denean

Batzuetan, pertsonok barne-desira sakonak izaten ditugu —profesionalak, ekonomikoak, kirol arlokoak,...—, eta horiek beteko bagenitu zorientsuak izango ginatekeela iruditzen zaigu.

Argumentu honetarako, protagonistek beren desirarik edo gogorik handiena bat-batean betetzen duten egoera planteatu behar da. Horren ondorioz, pertsonaia horien bizitzak erabat aldatuko dira, eta horrek azkenean “zorientasuna” apurtuko du. (*Perla*, J. Steinbeck).

b) Polizia-eleberria

Horrelako eleberri bat idazteko argumentu gisa, orain urte batzuk gertatutako kasu bat erabil dezakegu: Petra Kelly alemaniar “berdea” eta bere senarra —bera baino dezente zaharragoa— hilik agertu ziren beren apartamentuan. Polizien lehen ikerketen arabera, suizidioa izan zen (batek bestea hil zuen, eta gero azken horrek bere burua hil zuen). Baina badirudi beste arrazoi batzuk ere tartean izan daitezkeela.

c) Norbere suntsiketa

Pertsona baten suntsiketak, bere miseria fisikoa edo morala, edo biak batera biltzen ditu. Hasieran izan daiteke zerbait fisikoa: droga, alkohola...; edo morala: erruduntasun-konplexua, segurtasun-falta, jazarpen-konplexua,...

Narrazio honen gaia autosuntsiketa izango litzateke, edonola ere. Hobekien ezagutzen duzun edo informazio gehien eskaintzen dizun alderdia hautatu beharko zenuke.

Adibide gisa, Anjel Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez* irakur daiteke.

d) Heriotza

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gutziz ziurra den heriotza baten atarian, bakar-bakarrik, beste inorekin hitz egin ezinik, zentzumenak oso ahulduta dauzkan pertsona batek sentipen lausoak jasotzen ditu kanpoaldetik, eta, bere barruan, iragana argi eta garbi azaltzen zaio: gozamenak, tristeziak, amodioak,... eta beharbada egoera hartara eraman zuen istorioa ere bai.

e) Porrota

Bi pertsona (bi lagun, anai-arrebak, bikote bat) hiri handira joaten dira beren ametsak gauzatzera, garaipenaren bila. Bertan, frogaldi luze baten ondoren, oztopo latzak gainditzen saiatuz, baikortasuna eta ilusioa gorde nahian, porrota onartzea eta proiektu handiei uko egitea beste erremediorik ez zaie geratzen. (*Los reyes del mambo*).

f) Abenturetako eleberria

Naufragio bat. Bizirik geratutako bakarra itsasoan edo lur ezezagunean dago. Hasierako desesperazioaren ondoren, bizirauteko modua bilatzea beste erremediorik ez dauka. Ezezaguna edo kontrakoa zaion ingurunean moldatzeko beharrak protagonistaren nortasuna eta izaera baldintzatuko ditu. (*Robinson Crusoe*).

g) Errebeldea

Sistema soziala onartzen ez duen pertsona bat. Gizarteko baldintzak uzten dioten baino bizitza libreagoa, bereagoa eta originalagoa bizi nahi du. Oso gaztetatik, erabaki pertsonal berezia eta besteentzako "oso arraroa" hartuko du. Bizitza osoan zehar jarrera hori mantenduko du, eta besteek pixkanaka onartuz joan beharko dute gure pertsonaiaren bizitzeko era berezia (*Errebeldeak*, Susan Hinton).

h) Zientzia-fikzioa

Zientzia-fikziozko argumentuak bi izan dira tradizionalki: lurtarrak espaziora abiatzen dira, eta han, zerbait ezezaguna, ulergaitza edo etsairen bat topatzen dute. Beste muturrean, espazio urruneko biztanle arrotzak lurrera etortzen dira (planeta inbaditu nahian edo lagunak egiteko nahian, eta abar). (*Munduen gerra*, H.G. Wells).

i) Talde-gatazka

Gizatalde baten iritziaren kontrako zerbait egin nahi dute (enpresa bat itxi, autobide bat egin, eta abar). Orduan, aldeko eta kontrako interesak sortzen dira segituan: enpresak, pertsonak, gobernuak,... Horren ondorioz, talde-gatazkak gertatzen dira, eta horien analisisa interesgarria izan daiteke eleberrirako gai bezala. (*Harrika*, Xabier Mendiguren Elizegi).



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

6.1.2. Ikuspuntua

Argumentutik abiatuta orri batzuk idatziko dituzu pixkanaka, ia konturatu gabe. Baina orain inportanteena zera da: istorioa nola kontatu nahi duzun, non kokatu nahi duzun, zer pertsonaia izango dituen, eta nork kontatzen duen.

Azken horri buruz, literaturan oso trebatuak ez direnak harritu egiten dira: “istorioa idazleak kontatzen du, ezta?”. Puntu hori inportantea da, erabaki behar den lehenengoa. Beste hitz batzuetan esanda, erabaki behar duzu zer ikuspuntutatik kontatuko duzun istorioa, narratzailearen fokua, istorioa kontatzeko narratzailea kokatzen den puntua.

Beste hitz batzuetan, nork kontatuko duen istorioa eta zergatik. Aukera asko dago horretarako, eta horri *ikuspuntua* deitzen zaio. Gero, ikuspuntu nagusien laburpena doa, bakoitzaren abantaila eta eragozpenekin.

Kontatzeko prozedurak nagusiki bi dira:

- Istorioa ezagutu eta kontatu egiten dugu, bertan parte hartu gabe (istoriogile-narratzailea).
- Isterioko pertsonaiaren bati kontrazten diogu (aktore-narratzailea).

a) Istoriogile-narratzailea

Horrelako narratzaileak istorioa kontatzen du bere burua istoriorik kanpo kokatuta. Kontatzeko bide honek objetibotasun eta urruntasuna iradokitzen du. Gertakizunak asmatu, transmititu, eta horietatik kanpo geratzen da egilea. Hiru modu nagusi ditugu:

a.1) Narratzaile orojakilea

Hau da istorioa kontatzeko erarik klasiko eta errazena. Pertsonaiak eta gertakizunak zeuk asmatuko dituzu eta “zeureak” izango dira. Isterioko datuak zeuk bakarrik izango dituzu, eta erabiliko dituzu istorioa kontatzeko, hirugarren pertsonan, nahi dituzun elementu guztiak gaineratuz.

Zure eleberrian teknika hau erabiltzen baduzu, kontuz ibili gehiegizko manipulazioarekin. Isterioa zuk asmatu duzu, baina, hala ere, koherentzia izan behar du; pertsonaiak ezin dira “erabili” besterik gabe istorioaren mesedetan.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Horrelako eleberriak, askotan, idazlearen pentsamendua adierazteko erabili izan dira, eta horren arriskua manikeismoa da, pertsonaiak on eta gaizto gisa agertzea, idazleak bezala pentsatzen duten neurrian. Horixe da saihestu behar dena.

a.2) Kanpoko behatzailea

Formula hau aurrekoaren arriskuak saihesteko asmatu zen. Horren bidez, narratzaileak ezagutu egiten ditu pertsonaiak, baina ez da beren pentsamenduak edo iritziak suposatzen. Beraz, kontu daitekeen bakarra zentzumenekin soilik hauteman daitekeena da. Hau da, ekintza hirugarren pertsonan kontatzen da, zinemako kamerak hartuko lukeen bezala.

Prozedura honen bitartez objektibotasun handia lor daiteke, eta horrekin batera plastikotasun handia ere bai, xehetasunen deskripzioan. Eleberri beltz asko horrelakoak dira: *Betiko loa, Maltako belatza,...*

Gerta daitekeen zailtasunik handiena da pertsonaiei sakontasuna ematea: erabiliko dituzun pertsonaiak eta xehetasunak ondo aukeratu, eta gogoan hartu zure helburua dela pertsonaiak eta gertakizunak ekintza baten barruan deskribatzea.

Kontatzeko estilo horri hobekien doazkionak esaldi laburrak dira, bata bestearen atzetik doazenak edo koordinatuak, gertakizunek kausa-ondoriorik gabe agertu behar baitute.

a.3) Argitaratzaile-narratzailea

Hau, funtsean, da narratzaile orojakilearen abantailak disfrutatzen jarraitzeko asmatu zen prozedura. Istorioa ez ezik, istorioa bera ere idatzi duen tarteko narratzaile bat ere asmatu behar da. Idazleak, azkenean, aurkitu dituen paper batzuk argitaratu besterik ez du egiten bere fikzioan, eta, horren bidez, istorioaz hitz egin dezake, epaituz edo kritikatu, irakurle bat gehiago balitz bezala.

Hori guztia dela eta, prozedura interesgarria da istorio ironiko, kritiko eta didaktikoak idazteko.

Teknika hau erabiliko bazenu, kontuan hartu istorioa ez dela zeurea, eta beraz, garbi desberdindu behar duzu zeure hizkera era aurkitutako testuarena.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

b) Aktore-narratzailea

Talde honetako narratzaile guztiak, nola edo hala, istorioaren parte dira. Hortaz, aktore-narratzaile honek lehen pertsona erabiliko du istorioa kontatzeko, bere buruari erreferentzia eginez. Horren ondorioz agerikoena hurbilketa da: istorioa da narratzaileak zerbait pertsonal gisa eskaintzen diguna; gainera, irakurlea mezuaren jasotzailea da eta, hortaz, narratzailearen solaskidea.

Teknika honen ezaugarria subjektibotasuna da. Gertakizuna bera baino areago, kontatzen dizkigun pertsonaren ikuspuntu konkretua da axola zaiguna.

Beste alde batetik, ikuspuntuarekiko koherentzia ere eskatzen du, narratzaileak duen hurbiltasun-graduaren arabera. Horretan, hiru aldaera bereiziko ditugu:

- Narratzailea protagonista denean.
- Narratzailea bigarren mailako pertsonaia denean.
- Narratzailea jardunaren behatzailea denean.

b.1) Narratzailea protagonista denean

Istorioko protagonistak berak kontatzen duenean. Oroitzapen moduan edo arrazoiren batengatik kontatzen duelakoa egin dezake. Norbaitek beste bati bere bizitza kontatzen dionean gertatzen da prozedura hau.

Horren abantaila zintzotasuna da, protagonista bera baita kontalaria. Modu erraza da pertsonaien osotasuna agerrarazteko.

Honen barruan, eleberrigintza modernoak asmatutako beste baliabide bat kokatu beharko genuke: “barne-bakarrizketa”.

Prozedura hori egokia da kontzientziaren eduki eta prozesuak irudikatzeko. Hemen, kontua ez da ekintza erakustea, baizik eta kontzientzia funtzionatzen harrapatzea eta irudikatzea, pentsamendu antolatu bihurtu baino lehen.

Ondorioa haluzinaziozko mundu bat izaten da, koherentzia gutxikoa, eta erabil daiteke ekintzaren erreakziorik ezkutuenak argitzeko. Hala ere, zaila da ondo erabiltzea, eta hori baino lehen eleberriren bat irakurtzea komeniko litzateke.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

b.2) Narratzailea bigarren mailako pertsonaia denean

Pertsonaia nagusien ondoan, beti daude bigarren mailako pertsonaiak (laguntzaileak, morroiak, lagunak,...), modu lasaiago batez istorioa konta dezaketenak. Narratzaile mota honen ezaugarriak hauek dira:

- Lehen pertsonaren erabilera.
- Gertakizunen deskripzio objektiboa.
- Gertakizunen interpretazio subjektiboa.
- Interesgune narratibo bikoitza: ekintzarena eta narratzailearen nortasunarena.

Narratzaile mota hau erabiliz gero, oso inportantea da narratzailearen nortasuna ondo marraztea, gainerako guztia nortasun horren ikuspuntutik etorriko baita emanda.

b.3) Narratzaile behatzailea

Egia esanda, aurreko aukeraren muturreko kasua da. Istorioaren lekukoa da, baina ia parterik hartu gabe.

Hasiera batean, kanpoko behatzailearekin nahasten dela ematen du, baina formalki honen narrazioa lehen pertsonan garatzen da, eta batzuetan bere iritzia ere bai. Kanpoko narratzailearen kasuan, istorioaren lekukoa izan zela pentsa daiteke, baina narratzaile horren nortasuna ez da inoiz ageri.

Hemen jaso duzu ikuspuntuen aukera posible bat. Bata ala bestea hautatzea inoiz ez da gutizia hutsa, eta beti dago idazlearen intentzioarekin oso lotuta: objektibotasunaren inpresioa eman nahi bada bata hautatuko da; pertsonaia baten nortasun-ezaugarriak azpimarratzea interesatzen bazaio, beste bat..

Esan gabe doa, gaurko narratiban ahots askoko obrak ugari dira, obra koral deiturikoak, non narratzaile bat baino gehiago ageri baita, bakoitza bere bertsioa emanaz edo istorioaren zati bat eskainiz.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Ikuspuntuari buruzko ariketak

1.1. Narrazio-jolasa taldeka

a) Guztien artean, gutxi gorabehera gertuko zaizuen eszena batean pentsatu: jai bat, txango bat, etxeko bazkari bat, istripu bat,... Ados jar zaitezte gertakizuneko kontu nabarmenenetan, eta paperak banatu. Zuetariko bakoitzak dagokion ikuspuntutik kontatu behar du gertaturikoa. Gero, emaitzak elkarri irakurri.

b) Billar amerikarraren finala jokatzen ari da. Faboritoak bola jotzen du; azken karanbola izan daiteke. Bola tapete berdearen gainean jiraka doa. Ikusmina bere gorenean dago...

Eszena horretan oinarriturik, hamarna lerroko hiru testu idatzi:

- Billar-mahaiko tapete berdean pausaturik dagoen euli baten barne-bakarrizketa.
- Finala transmititzen ari den kirol-esatariaren narrazio objektiboa hirugarren pertsonan.
- Jokalariaren barne-bakarrizketa bola jiraka ikusten ari denean.

1.2. Istoriogile-narratzailea

a) Narratzaile orojakilea

Nahikoa izan daiteke goian emandako azalpena; hala ere, ondo finkatzeko, hartu horrelako bi narrazio, bat berria eta beste bat zaharra, eta erabileren arteko desberdintasunak eztabaidatu.

b) Kanpoko behatzaile-narratzailea

Ikusten dena eta bakarrik ikusten dena kontatu behar da, ezer suposatu gabe eta ikusten den ordenan. Bi ariketa proposatzen dira:

* Eskiatzailearen jolasa. Gertakizun beraren hiru deskripzio, ikuspegia aldatuta:

- Eskiatzailea 500 metroko mendian behera dator. Behean kokatutako kamerak jaitsiera filmatzen du.
- Orain, kamera goian dago, mendiko tontorrean.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- Azkenik, kamera mugikorra eskiatzailearen parean jaisten da.

* Ispilu baten aurrean eserita dagoen norbaitek kontaktzen du. Bere atzean, eskailera bat eta jaisten ari den emakume bat. Deskribatu eserita dagoenak ikusten duena.

c) Argitaratzaile-narratzailea

Adibide argigarriren bat irakurri eta komentatu.

1.3. Aktore-narratzailea

a) Narratzaile protagonista

* Barne-bakarrizketa. Gizon (edo emakume) bat edaten ari da, bere emaztea (edo senarra) hil dela ahazteko. Baina edariak hitz eginarazten dio, eta istorioa kontaktzen du inolako ordenarik gabe eta gauzarik arraroenekin erlazionatuz. Saia zaitez hori idazten.

* Egiaren koktela. Lagun bat hautatzen dugu galdera batzuei ozenki erantzuteko: zer kolore daukazu buruan; zer sentipen fisiko, zer aurpegi ikusten dituzun zeure barruan; zer gauza ikusten dituzun *Honolulu* hitza entzunda; zure gorputzeko tokiren batean nabaritzen duzun tentsioa deskribatu; haur-kanta bateko bertso pare bat errezitatu.

Lagunaren erantzunak bildu, eta koktel bat eginez idazki bat osatuko dugu. Interesgarria izan daiteke elementuren bat, haur-kanta, esaterako, errepikaturik agertzea.

* Klasean zaude. Irakaslea gai bat azaltzen ari da. Zuk entzuten diozu eta aldi berean begiratu egiten diozu. Nola doan jantzirik, egiten dituen keinuak, ahotsaren tonua... Aldi berean, kezka bat daukazu: azterketa bat, lagunaren batekiko haserrea,... Aldi berean, gelako lagunak ere ikusten dituzu. Hitz egin gai guztioi buruz, txandaka, esaldi laburretan eta alde zuzenetik sarrerarik egin gabe. Narrazioaren haria horietariko baten batek emango dizu; adibidez, irakaslearen azalpena.

Aurreratze-ariaketak

Ikuspuntua zure eleberriri aplikatu behar diozu. Horretarako, honako hau egin:

a) Gaur goizean egin duzuna kontatu. Dudatan bazaude bi edo hiru ikuspunturekin, hamar bat lerro idatzi bakoitzarekin. Emaitez adieraziko dizute zein aukeratu.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

b) Zure eleberrian erabiliko duzun ikuspuntua aukeratu, eta gaia garatu orri pare batean. Kontu egizu ez duzula hasiera edo pasadizo bat kontatu behar, zure eleberriaren oinarria izango den istorioa baizik. Jakina, bertan “argumentu” modukoren bat ikusi behar da.

6.1.3. Egitura

Zenbait orrialde idatzi dituzu zeure eleberriaren argumentuari buruz. Orain, hurrengo pausoa eleberri hori planifikatu eta antolatzea da.

Baina argumentua ez da nahikoa. Argumentu asko eta asko aurki daitezke egunkarietan, esaterako, eta horiek ez dira eleberriak. Eleberria izateko, argumentu horrek tratamendu estetikoa behar du: erritmoa, antolaketa berezia, hizkera literarioa,...

Horretarako, lehenengo, garrantzirik gabeko gertakizunak kendu egin behar dira. Bakarrik utzi behar dira eleberriaren garapenerako esanguratsuak izango direnak. Baina goazen zatika.

1. Hizkera

Eleberria, jakina, hitzez eginda dago. Eta hizkera horrek bi forma har ditzake:

Narrazioa: gertatzen direnak kontatzen dizkiguna.

Elkarrizketa: honen bidez pertsonaiak zuzenean agertzen zaizkigu, entzungo bagenitu bezala. Eta berbaldi bakoitzaren ondoren, narratzaileak *esan zuen* edo *galdetu zuen* eta antzerakoak gaineratzen ditu soil-soilik.

Elkarrizketaren bidez “errealitatearen ilusioa” eman nahi dela esan daiteke. Alde horretatik, elkarrizketa horrek sinesgarritasuna behar du. Egon daiteke batere elkarrizketarik gabeko eleberri bat (oso lirikoa, poesiatik hurbil), eta baita elkarrizketa hutsez osaturiko eleberri bat ere (eleberri dramatikoa deiturikoa). Baina muturrak alde batera utzita, normalena narrazioaren eta elkarrizketaren arteko oreka bilatzea izaten da. Honako hauek kontuan hartu:

- Narratzailearen hizkerak bat etorri behar du hautatutako narratzaile motarekin.
- Elkarrizketaren hizkera ere solaskidearen arabera egokitu behar da: haren gizarte-mailara, adinera, heziketara,...
- Elkarrizketek egoerarekiko koherentzia behar dute.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- Erritmoaren zentzua behar da: batzuetan elkarrizketa bat astuna gerta daiteke egoera batean, eta narrazioa ere berdin.

2. Eleberri irekia / Eleberri itxia

Orain, eleberriaren proiektua garatu egin behar duzu. Horretarako bi aukera dauzkazu. Batetik, idatziko duzunaren eskema eta horren ordena egin dezakezu, etxe bateko planoak balira bezala. Nola hasiko den istorioa, nola garatuko den eta nola amaituko den. Gainera, sekuentzia inportanteenei buruzko apunteak ere har ditzakezu: kapitulutan nola antolatu, eta abar. Hitz batean, aurkezpena/korapiloa/amaiera eskema ezagunari jarraikiz egin dezakezu. Horri eleberri itxia deitzen zaio.

Baina beste aukera bat ere badaukazu: eleberri irekia. Horretan, aurreko elementuak ez dira ageri; ez dago zentzu osoa ematen duen bukaera bat. Sorkuntzaren aldetik, ez dago alde zuzeneko planik. Idazlea idatziz doa; narrazio iturri hori handituz doa, eta edozein unetan gera daiteke, mutur guztiak lotu beharrik gabe.

Dena dela, bata ala bestea aukeratu behar da gaiaren arabera eta oso ondo pentsatu eta gero egin behar da.

3. Muntaia

Edozein artelanek badu bere antolakuntza: musikak, zinemak, komikiak. Istorioak zatiak izan behar ditu, eta zati horiek kapituluak dira. Berez, kapitulu horiek kapitulu gisa ager daitezke ala ez, baina zatiketa hor dago.

Kapitulua unitate bat da. Eskuarki, eleberri bat irakurtzen ari garela, saiatzen gara kapituluak bukatzen hurrengorako utzi baino lehen. Beraz, **irakurketa-unitatea** da, baina baita **intentzio-unitatea** ere: aukeratu duzun eleberri motaren arabera, gaizkilea deskubritzeko ematen diren pauso guztiak (poliziakoan); ekintza-unitatea; pertsonaien deskripzioak; narratzaileen ahotsak. Azkenik, **erritmo-unitatea** ere bada: bukaera atzeratuko duten kapituluak tartekatzea, kapitulu bakoitzaren luzera, eta abar.

Kapitulua unitate txikiagotan zatitzen badugu, sekuentziak aurkituko ditugu. Sekuentzia batean, batera etortzen dira oinarrizko osagai narratiboak: pertsonaia, tokia eta denbora. Bestela esanda, sekuentzia bat izango litzateke toki jakin batean kokatuta dauden pertsonaiek denbora-tarte jakin batean egiten dutena.

Hiru osagaietariko baten bat aldatzen denean, sekuentzia ere aldatu egiten da.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Adibide bat ikus dezagun: bi gazte ari dira lapurreta bat planeatzen etxe abandonatu bateko gela batean. Hogei minutuz egongo dira han.

Gero kalera baldin badoaz, sekuentzia-aldaketa dago tokia aldatu delako.

Narratzaileak denbora-mozketa bat tartekatzen badu (“hurrengo egunean, eta abar”), sekuentzia-aldaketa dago denbora aldatzen delako.

Hizketan ari direla polizia agertzen bada, sekuentzia-aldaketa dugu pertsonaiak aldatzen direlako.

Hori guztia oso automatikoa da idazteko orduan, eta kontua ez da sekuentziak barabarra egitea. Baina inportantea da hori horrela dela konturatzea eta jakitea. Horrek lagun zaitzake eleberriko elementuak hobeto neurtzen eta kokatzen.

Eta sekuentzien barruan planoak daude, zineman bezala. Plano motak hauek dira: xehetasun-planoa (eraztun bat), lehen plano (aurpegi bat), lehen-lehen plano (begiak), plano orokor laburra (pertsona bat), plano orokorra (plaza bat), plano orokor handia (herri osoa).

Azken ohar bat: zure eleberraren egitura lineala izan daiteke, hau da, kontatzen duzun anekdotaren hariari jarraitu, ala beste modu batera jokatu. Adibidez, polizia-eleberrian oso normala da krimenarekin hastea eta gero ekintza osoa berreraikiz joatea. Edo une horretatik hastea eta gero, bi adarretan bezala, atzeko istorioa kontatzea (gaizkileen nortasuna marraztuz eta abar) eta aurreranzkoa ere bai (ihesa, ondorioak, epaiaketak). Txandaka ere konta daiteke, bi edo hiru istorioetako pasarteak tartekatuz.

Edonola ere, kontuan izan zure istorioaren kontakizunak ez diola nahitaez gertakizunen hari kronologikoari jarraitu behar.

Ulertze-ariketak

1. Komiki bat kontatu binetaz bineta, baina gertakizunei bakarrik erreparatu beharrean, saiatu pertsonaien psikologia, motibazioak, prozedurak, eta abar agertzen.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

2. Orain, binetak moztu eta beste ordena batean muntatu. Istorioa berriro kontatu datu berririk erantsi gabe. Ariketaren helburua zera da: istorio batean, narrazioaren ordena aldatuz, alderdi berriak azpimarratzen direla konturatzea.

Aldi berean, azkenetik hasten bazara, lehenaldiko aditzak erabiliko dituzu, eskuarki burutuak. Hasierako ordenarekin, berriz, orainaldiak edo burutugabeak erabiliko zenituzke.

Istorioaren erditik hasiz gero, aldiak txandakatuko dira.

3. Egitura-ikuspuntua.

Lehenengo, ikuspuntua zozkatzen da taldeen artean.

Gero zortzi paper prestatu (bat bineta bakoitzeko) eta istorioaren ordena erabakiko da, aldez aurretik emandako ikuspuntuarekin. Binetak taldekoen artean banatzen dira, eta ohar batzuk hartzeko beta eman eta gero, suertatu zaien ordenan bakoitzak bere binetaren berri kontatuko du minutu batez.

4. *Sekuentzia* eta *plano* kontzeptuak berrikusi. Pentsatu horretan eta sekuentzia bat idatzi (zeure eleberrikoa izan daiteke), mota bakoitzeko planoak sartuz.

Aurreratze-ariketak

1. Zeure eleberriaren gaia hartu, eta kapitulu edo zatitan banatu. Zehaztu bakoitzaren edukia.

2. Komikiaren ariketa gogoratu. Binetak izan beharrean, eleberriko kapituluak direla pentsatu. Kronologikoki ordenatu, eta bakoitzaren atzean bere argumentuaren eskema idatzi.

Hori egindakoa, bi ordena-aldaketa egin, baina ez edonola, intuizioz baizik. Gero, hiru aukeren artean, gehien gustatzen zaizuna hartu: hori izango da zeure eleberrian erabiliko duzuna.

3. Eskuaratean daukazazu zeure eleberriaren argumentua eta eskema posiblea. Orain, barne-erritmoa ematen saiatuko gara. Horretarako, konparazio bat ezarriko dugu musika mota batzuekin. Oso garbi dago, balsaren eta rockaren arteko desberdintasuna, adibidez:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

balsa pausatua da, motela, intimoa, amodio-aitorpenak egiteko aproposa; mugimenduak dotoreak dira, konpasatuak. Rocka, berriz, ustekabekoa da, oso mugitua, distorsionatua.

Zeure eleberraren erritmoa deskribatzeko, dantza baten bitartez egingo duzu, eta horren arabera kapituluaren erritmoa garatuko duzu. Baina kontuz! Ez hartu gehien gustatzen zaizun dantza, baizik eta kapitulu bakoitzaren edukiari hobekien doakiona.

4. Eleberriko lehen kapitulua zehazkiago garatuko duzu: planoari eta erritmoei buruz ikusitakoa berrikusi, eta kapitulu horren eskema egin.

Gero, hautatutako ikuspuntuaren arabera erredaktatu.

Horrek ez du beti horrela izan behar, baina hasteko deskripzio koloretsua egin, edo bestela une bereziki indartsu batetik, enigmaren planteamendutik, hasi. Kontua da irakurlea lehen unetik harrapatzea.

6.1.4. Denbora

Aldia, denbora, iraupena,... Horiek eta hitz gehiagok denborarekin zerikusia duten kontzeptuak adierazten dizkigute.

Atal honetan erabaki behar duguna da idatziko duzun eleberriko gertakizuna zenbat alditan iragango den, historiako zer alditan gertatuko den, zer aditz-aldi erabiliko duzun kontatzeko, nola adieraziko duzun denboraren iragatea, eta abar.

Gaia alde batera utzita, idatziko duzun eleberriko gertakizunak gerta daitezke lau belaunalditan zehar, egun batean edo ordu batean. Kasu horietan guztietan, eleberraren luzera berbera bada, imajina ezazu zer-nolako proportziorik eza gertatzen den iragaten den denboraren eta eskaintzen diozun orri-kopuruaren artean.

Lehen kasuan, narrazioak azkarragoa izan behar du, eta deskripzio gutxi eta azalpen zehatzak eduki. Denbora-jauziak sarritan gertatuko dira: kapitulu batetik bestera urte batzuk pasatuko dira batzuetan. Hori guztia jakinarazi behar zaio irakurleari daten bidez edo pertsonaien zahartzearen bidez.

Hirugarren kasuan, berriz, narrazioa oso geldoa izango da, eta deskripzio ugari, pertsonaien gogoetak, iraganeko oroitzapenak agertuko dira. Kasu horretan, denboraren

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

iragatea denborazko partikulen bidez egingo da (*lehenago, geroago, bitartean, egun hartan,...*), edo ziklo naturalen bidez (urtaroak, hotza eta beroa, eta abar). Eguna ilundu duela esatea nahikoa izan daiteke denbora-aldaketa bat adierazteko.

Denborak eta aditz-aldiak

Kontatuko dituzun gertakizunek zenbat debora hartuko duten, eta zer garaitan gertatuko diren erabaki behar duzu. Iraganean kontaturik orainaren ikasgaia izan daitezke, eta etorkizunean kokaturik profezia kutsua har dezakete.

Horrekin harremanetan, erabiliko duzun aditz-aldia dago. Itxuraz, oso erraza dirudi: iraganeko gauzak lehenaldian, gaur egungo gauzak orainaldian eta izango diren gauzak etorkizun-aldian kontatu behar dira. Baina kontua ez da hain erraza.

Esaterako, iraganean kokaturiko istorio bat orainaldian kontatu daiteke, eta horrela eguneratzen dira iraganeko problemak.

Egin daitekeen beste joko bitxi bat da oraingo gauzak iraganaldian kontatzea. Horrela, oraingo egoeraren azpimarratze ironiko edo tragikoa lor dezakezu.

Kontrako efektua lor daiteke aurreratze-eleberrian: iraganean kontatuz, historikotasuna da inportanteena, eta horrela etorkizunerako irakasgai gerta daiteke.

Baina, beti bezala, bata ala bestea hautatzea ez da apeta hutsa, gaiaren arabera erabaki behar den zerbait baizik. Kontuan hartu narrazioaren oinarritzko aldia lehenaldia dela, eta hori erabiliz gero ez dago problemarik.

Denbora objektiboa eta denbora subjektiboa

Denbora objektiboa erlojuek eta egutegiak markatzen dutena da. Eta denbora subjektiboa, berriz, aurreko denboraz jaso dezakezun inpresioa da: luze-luzeak egiten diren orduak, edo azkar-azkar pasatzen diren oporrak.

Hori adierazteko badira prozedura modernoak. Esaterako, denbora luzatu nahi bada, inpresioak, oroitzapenak, sentipenak,... pilatu behar dira narrazioan. Horixe da barne-bakarriketak erabiltzen duen prozedura (*gogoratu Denbora galduaren bila*). Bietarik zein erabiliko duzun erabaki behar duzu, betiere gaiaren arabera.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Kontatzeko abiadura eta beste

Ikusi dugu nola sor daitezke azkartasun- eta geldotasun-efektuak.

Batzuetan, denbora geratzea interesa dakizuke. Hori egin daiteke pertsonaiaren oroitzapenen bidez, ekintza geldituz. Gramatikalki, menpeko esaldi luzea erabiltzen da. Eta, alderantziz, esaldi motzak azkartasuna ematen dio testuari. Azken hori izaten da ekintzaren gailurrera iristen denean, azkartasun handia behar denean.

Ariketak

1. Asteburuan gertaturiko zerbait kontatu behar duzu, taldeka, aldez aurretik zehaztuta honako hauek: a) hautatutako ikuspuntua, b) hautatutako egitura, c) denboraren iragatea markatzeko modua.

2. Denbora luzea edo laburraren sentipena sortzeko:

- a) Plazer handiko minutu erdi bat kontatu; hain plazer handikoa, luzeagoa ematen du.
- b) Kontrakoa: taldekoen artean, imajinatu egoera bat; hain atsegina, denbora ia konturatu gabe pasatu da.

Aurreratze-ariketak

Zeure eleberriaren denbora kokatzeko, hiru alderdi aztertuko ditugu:

- Denbora iraupen gisa.
- Denbora egoera gisa.
- Narrazioaren denbora.

1. Denbora iraupen gisa. Zure eleberriko ekintza garatzen den aldia ari da. Ordu batzuk, egunak, urteak.

Iraupen hori adierazi, kapitulutan banatu, bakoitzaren iraupena zehaztuz. Grafiko bat egin horrekin.

2. Denbora egoera gisa. Zure eleberria zer garaitan gertatzen den zehaztu behar duzu. Horrek baldintzatuko ditu zure pertsonaien pentsaera, janzkera eta abar.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

3. Narrazioaren denbora. Zehaztu behar duzu zer aditz-aldi erabiliko dituzun zeure narrazioan. Zein izango den aldi nagusia (oraina, geroa, iragana), eta azaldu zergatik erabiltzen duzun.

6.1.5. Espazioa

Espazioak, alegia, ekintzak kokatzen dituzun tokiak, oso inportanteak dira. Bakoitzak bere espazio propioak dauzka: non bizi den edo non bizi nahi lukeen, zer taberna edo parke gustatzen zaion, kalea ala baserria nahiago duen, eta abar. Eta espazio horiek zerikusi handia dute eleberriaren alderdi psikologikoarekin.

Zeure pertsonaiak hiri batean, etxe batean, kokatzen dituzunean kontua ez da gauzak eta tokiak besterik gabe deskribatzea. Eleberrigile ona psikologo ona ere bada, eta badaki espazioaren eta pertsonaien arteko eraginak oso inportanteak direla, eta, hortaz, kontu handiz tratatu behar direla.

Espazio motak

Espazioak era askotakoak izan daitezke: barrukoak, kanpokoak, irudizkoak, errealistak, subjektiboak, magikoak, sinbolikoak,... eleberriaren gaia eta tratamenduaren arabera.

Espazioa zehazteko bi formularik arruntenak XIX. mendetik jaso ditugu: bata errealismotik eta bestea erromantizismotik.

Eleberrigintza errealistan benetako espazioak erabili dira batzuetan, eta besteetan benetakoak ez baina sinesgarritasun handia zutenak erabili dira. Kontua da irakurleari errealitatea dela sentiaraztea, gertakizunek benetakoak diruditen aldetik hurbiltasun psikologikoa lortzea.

Baina horrek ez du esan nahi espazio horiek era subjektiboz deskriba ezin daitezkeenik: batzuetan hori izaten da normalena. Tokiak ezagunak izan arren, pertsonaiak ikusten dituen bezala deskribatuak ager daitezke.

Eleberrigintza erromantikoko espazioak azken horretatik hurbil daude: dena da oso subjektiboa eta tokien izenak ez ohi dira ageri. Horren ordez, toki prototipikoak

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

erabiltzen dira: basoak, hilerriak, mendi-harkaitzak, eta abar. Beste hitz batzuetan esanda, ez-denbora eta ez-tokia erabiltzen dira, koordinatu guztietatik kanpo. Toki berezi horiek, ordea, zenbait egoera prestatzeko balio dute: zorigaiztoa edo maitasunezko idilioak prestatzeko.

Espazioa eta beste baliabide narratibo batzuk

Orain arteko ataletan esan dugun bezala, hemen ere koherentzia eskatzen da. Esaterako, kanpoko narratzailearen ikuspuntu bat ez dator bat, seguruena, espazio erromantiko batekin.

Beharbada, espazioarekin zerikusi handien daukan alderdia denbora da. Denbora eta espazioa elkarren osagarri dira.

Pertsonaiaren izaerak ere zerikusia izango du espazioarekin. Pertsonaia barnerakoia eta gaixoa bada, espazio itxia dagokio; pertsonaia irekia bada, espazioak irekia behar du.

Hitz batean, eleberria ezin da atalez atal pentsatu, bere osotasunean baizik, elementu batean pentsatzean beste denak ere kontuan hartu behar dira; elkarren baldintza dira.

Espazio sinbolikoak ere badira: itxidura adierazteko kartzelak, sotoak, uharteak erabili ohi dira; askatasuna adierazteko, espazio zabalak.

Ulertze-ariketak

1. Espazio objektiboa. Ondo ezagutzen duzun bidexkan pentsatu eta horren deskribapena egin. Baina ez eman datu guztiak, baizik eta narrazio batean behar-beharrezkoenak izango lirakeenak. Gero, lagunari pasatu, bidexka hori marrazten saia dadin. Gero, osorik ulertzeko falta diren elementuez eztabaidatu.

2. Espazio subjektiboa. Gelako leihotik ikusten den panorama deskribatu behar da era subjektibo batean; aldarte baten isla izan behar du. Besteek zera ondorioztatu beharko dute: deskribapena egin duenaren aldarte; eta zertan islatzen den aldarte hori.

Aurreratze-ariketak

1. Espazio onirikoa. Nahikoa sarritan erabiltzen da nobeletan. Ametsen mundua, arrazoimenetik kanpo dagoen guztia bezala, gai kezagarria zaigu.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Duela gutxi izan duzun amets atsegin batean edo amesgaiztoren batean pentsatu. Horretan murgildu eta saiatu koloreak, tokiak, xehetasunak gogoratzen. Pentsatu antzeko ametsa izan zezakeen zeure eleberriko pertsonaia batean, eta tartekatu amets hori zeure eleberriko toki egoki batean.

2. Barneko espazio bat deskribatu (etxea, gela), zeinak bere koloreagatik, ordenagatik, altzariengatik, argiagatik eta abarregatik zeure eleberriko pertsonaiaren psikologia islatzen baitu.

3. Azkenik, zeure eleberria zer toki nagusitan kokatuko den pentsatu, eta bakoitzaren fitxa bat egin, honako hauek zehaztuz: non dagoen, ezaugarriak, orografia, landaretza, klima... edo arkitektura, altzariak, koloreak, formak, giroa. Gero, toki horiek tratatzeko moduz pentsatu.

6.1.6. Pertsonaiak

Alderdi hau bukaerarako utzi dugu. Pertsonaiak oso garrantzitsuak dira, eleberriko beste atal guztiei zentzua emango baitiete.

Eleberri-irakurle onak, bere lagun pertsonalez gain, baditu beste hainbeste lagun literario: irakurketa guztietan zehar hunkitu gintuzten pertsonaiak, gizakia ulertzen lagundu zigutenak.

Zeure eleberrian pertsonaia batzuk sortu dituzu ezerezetik. Baina, zein dira pertsonaia horiek sortzeko baliabideak? Ikus ditzagun batzuk:

a) Pertsonaia errealitate abstraktu baten adierazgarri da (bakearena, elkartasunarena,...). Horiek pertsonaia sinbolikoak dira. Horrelakoetan, irudikatzen duten balioa gehiago interesatzen zaigu berezko duten balioa baino. Horrelako pertsonaiak Unamuno eta Camus-en nobeletan aurki ditzakegu.

b) Pertsonaia idazlearen irudia da, eta aukera horren barruan hainbat ñabardura daude. Oinarrizkoena zera da: pertsonaia bere sortzailearen irudi hutsa izatea, batez ere alderdi psikologiko eta ideologikoei dagokienez. Idazlearen datu bakar batzuetatik abiatuta ere egin daiteke hori, eta horrek lan handiagoa eskatzen dio eleberrigileari.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

c) Pertsonaia kanpoko errealitateetik aterata egon daiteke. Aurreko kasuan bezala, osotasunaren zein zati baten erreprodukzioa egin daiteke.

Pertsonaia/ikuspuntua

Bi elementu horien arteko harremana inportantea da. Narratzaile orojakile batek hobeto biribilduko ditu bere pertsonaiak narratzaile behatzaileak baino; eta narratzaile protagonistak datu gehiago edukiko ditu bigarren mailako pertsonaia narratzaileak baino. Bata ala bestea aukeratzeak asko aldatuko du pertsonaien ikuspegia.

Izena

Pertsonaien izenak pertsonaiak identifikatzeko balio du. Izenaren bidez pertsonaia osatzen dugu; izenak, nolabait, izana ere ematen digu.

Askotan, izen iparramerikarrak jartzeko joera egoten da. Gainera, batzuetan iruditzen zaigu izen mota horrek prestigioa ematen diola pertsonaiari. Horren arrazoia, jakina, telesail gehiegi ikustea da.

Lehen aipatu dugun identifikazio-balioa funtsezkoa da. Gero ere, izen konbentzionalak erabili ohi dira: denetarako balio duten izen arruntak. Eta, azkenik, izen sinbolikoak erabil daitezke (hau da, izenak pertsonaiaren ezaugarri psikologiko, moral edo soziala ematen digunean: Aberats, Lokamuts, Mari Zoro, eta abar).

Pertsonaia lauak eta biribilak

Komunikabideek, askotan, errealitatearen irudi deformatua ematen digute, eta guk asimilatu egiten dugu konturatu gabe, eta inguratzen gaituzten pertsonen interpretazio sinple eta eskematikoa egiteko joera izaten dugu. Batzuentzat, ezagutzea sailkatzea da.

Era horretan, molde-pertsonaia asko dauzkagu: ona eta gaiztoa, umila eta harroa, eskuzabala eta zikoitza, eta abar.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Baina gizakia ez da etiketa huts bat, eta pertsona bat zenbat eta gehiago ezagutu zailago gertatzen zaigu definitzea.

Eleberri batean horrelako pertsonaia bat aurkitzen dugunean, kontraesanezkoa batzuetan, dentsitate handikoa, konplexua, pertsonaia biribila daukagu. Eleberrian zehar oso pixkanaka ezagutzen dugu, bere eginkizunen bitartez, eta ez narratzaileak emandako definizioaren bitartez.

Pertsonaia laua definitzen duen ezaugarria, berriz, zera da: gu harritzeko ezintasuna. Etengabe, jokabide eskema bera errepikatuko du eta ez du kontraesanik izango. Keinu-eta jarrera-zaku bat besterik ez da, eta pertsonaia horretan bukatzen da.

Aurkezpena

Nola agertzen da pertsonaia eszenan? Horixe da orain planteatzen den kontua. Hiru bide daude:

- a) Narratzaileak pertsonaiaren erretratua egiten du (fisikoa, psikologikoa, orokorra). Erretratu horrek baldintzatu egiten gaitu pertsonaiaren jarrerak ulertzeko orduan.
- b) Pertsonaiak bere eginkizunen bitartez aurkezten du bere burua, jardunean. Eta bere jokabidea izango da guk pertsonaia horretan izango dugun iritzia landuko duena. Errealitate-sentipen handiagoa ematen du.
- c) Beste pertsonaia batek aipatzen du agertu baino lehen. Baliabide horrekin, pertsonaia berriaren inguruan halako ikusmina sortzen da.

Ulertze-ariketak

1. Pertsonaiak nondik hartzen diren. Horretarako bide arrunta ezagunen artean bilatzea da. Bi ariketa proposatzen dira: a) interesgarria iruditzen zaizun norbait aukeratu eta azaldu, lerro gutxitan, zer nolako eleberria egingo zenukeen horri buruz; b) zeure eleberriko protagonistaren aurpegia bilatu inguruko jendearen artean eta hautatu dituzun tonua eta ikuspuntuaren arabera deskribatu.

2. Pertsonaiak nola aurkezten diren. Kontu hau erlatiboa da, eta narratzaileak aukeratzen du. Dena dela, bi aukera daude:

- Erretratua eta ezaugarriak emanez.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- Jokatzen jarritz eta horren bidez definituz.

Taldeen erdiek lehen aukerarekin lan egingo dute: gelako bat hautatuko dute, eta arroparik eta dagoen tokia aipatu gabe, deskribatu egingo dute, ea besteek nor den asmatzen duten.

Beste erdiek ere lagun bat hautatuko dute, baina ezingo dute inolako ezaugarririk eman, eta bakarrik idatzi ahal izango dituzte pertsona horren ohiko ekintzak, jarrerak, eta abar, hori dena osotasun batean integraturik.

3. Pertsonaiei nolako izena eman. Pertsonaien tipologiak bilatzeko, zoaz toki jendetsu batera eta apunteak hartu. Azkenean, bildu jende guztia tipo kopuru mugatu batean bildu (etxekoandreak, modernoak, bizizaleak, dotoreak, eta abar), tipo bakoitzaren ezaugarriak adierazi, eta bakoitzari izen egoki bat bilatu.

Aurreratze-ariketak

1. Lagun bat gelatik ateratzen da. Barrukoon artean gelako bat hautatuko dugu. Laguna sartzen denean, “lorea, kolorea, paisaia, hiria... balitz, zein izango litzateke?” jokoan arituko gara, gelakoen erantzunak idatzi, eta ea nor den asmatzen duen. Joko metaforiko bera erabiliz, gure eleberriko pertsonaiekin ere gauza bera egingo dugu, horien ezaugarriak emateko metafora eta konparazio orijinalak izateko.

2. Gogoratu egituraren kapituluko planoen kontua. Zeure pertsonaia nagusiaren hiru plano osatu.

3. Zeure eleberrian erabil ditzakezun bi pertsonaia asmatu. Bata izango da zeuk izan nahiko zenukeena, eta bestea inoiz izan nahi izango ez zenukeena.

4. Zeure ideiak gehiago argitzeko, egiozu elkarrizketa bat zeure eleberriko protagonistari, tranpa egin gabe. Gauza guztiez galdetu: izaeraz, sentimenduez, pentsaeraz, eta abarrez. Ea zer erantzuten duen.

6.2. *El alfar de la poesía*

Genero ezezagun horri buruzko aurreiritziak baztertu ondoren, ariketa poetikoak proposatzen dira, bi sailetan: adierazlearen maila (erritmo eta sinbologia fonetikoak,

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

tonua, eta abar) eta adieraziaren maila (iruditeria ohikoak eta berriak, izenondoen erabilerak, sinestesia, eta beste). Bestalde, banakako lana egiteko beharko litzatekeen giroa lortzeko aholkuak ematen dira: musika, barruko kezketan arakatzeko beharra. Eskolako azken egunetan, ikasleak taldeka biltzen dira gelako poemen antologia bat egiteko, eta azkenean liburuxka bat osatzen da.

6.2.1. Adierazlearen maila

a) Erritmoa lantzeko ariketak

- Doinu tradizional bat gogora ekarrita, letra ipintzen saiatu.
- Eredu batzuen egitura erritmikoa (erromantzea, koplak...) erreproduzitu.
- Poema erritmiko modernoak errezitatu gorputz-mugimenduak azpimarratuz.

b) Sinbologia fonetiko lantzeko ariketak

- Asmatutako soinu linguistiko batzuk irudi geometriko jakin batzuekin parekatu.
- Hainbat gauza iradokitzen dituzten hitz asmatu batzuetan oinarrituta, testu bat idatzi.
- Sentipen jakin batzuk irudikatzen dituzten hitzak asmatu.

6.2.2. Adieraziaren maila

- **Izenondoak ordezkatzeta.** Lau izen hartuta (krabelina, limoia, harria, zerua), bakoitzari dagozkion izenondoak idatziko ditugu. Gero, gurutzatu egingo ditugu, izen bati dagozkion izenondoak beste izen bati aplikatuz. Azkenik, sortutako sintagmekin poema bat osatuko dugu.
- **Sinestesia.** Aurreko ariketako prozedura bera erabiliz, zentzumenekin zerikusia duten izenak hautatuko ditugu (musika, kolorea, zaporea, ukimena). Bakoitzari berez

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

dagozkion elementuak beste zentzumen bati aplikatuko dizkiogu. Emaitzak aztertuko ditugu, eta poema bat osatuko dugu.

- **Irudi ametsezkoa.** Hitz zerrenda bat emanda (ortzadarra, txoriñoa, bihotza, etxea, zeruertza, oihua, arraina, aiztoa, gaua, argia, zomorroa, hatsa, zaldia, heriotza), bakoitzak hiru irudi ametsezko osatuko ditu. Taldeak kide bakoitzaren irudirik onena hautatuko du: “Gaua zomorro bat bezalakoa da”, “heriotza zaldi bat bezalakoa zen”... Gero, kideek irudietako bi elementuen arteko harremana azalduko dute, kontuan hartuz ez dela logikoa, baizik eta zirrarek, iradokizunek edo sentipenek eragindakoa.

6.3. La fábrica del teatro

Helburua antzezlan bat jokatzea da. Horretarako, lehenbizi antzerkiaren joerei buruzko txosten bat aztertzen dute (abangoardista, absurduarena, errealista konprometitua eta antzerki politikoa), eta hurrena antzezlan bat aukeratzen dute eta taldeak osatzen dituzte: zuzendaritza, dekoratuak eta efektu bereziak; jantziak eta itxuraketa; aktoreak, antzerki-kritikoak.

6.3.1. Dekoratuak eta efektu berezien taldea

Talde honek bi zeregin nagusi izango ditu: dekorazioa eta efektu bereziak. Lehenengoari dagokionez, honako hauek prestatu beharko dituzte: dekoratua egiteko proiektua (materialak, planoak); kartoizko edo zurezko maketa bat (antzezleek baliatu ahal izango dute espazio-gida gisa); proiektuaren gauzatzea, aldeztatik zehaztutako epeak errespetatuz.

Efektu bereziei dagokienez ere, proiektu bat prestatu beharko dute, obraren garapeneko teknikak, uneak eta beharrezko materialak zehaztuz. Gero proiektua garatu beharko dute.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

6.3.2. Jantzien eta itxuraketaren taldea

Horretarako, egokia izango litzateke jantzien museora joatea, ideiak jasotzeko.

Lanean hasi baino lehen, txostena arretaz irakurri beharko dute, aktoreen janzkerarekin zer helburu lortu nahi diren argitzeko.

Janzkerari dagokionez, proiektuen marrazkiak aurkeztu beharko dituzte, egiteko behar diren materialak zehaztuz. Hurrena, jantziak egin beharko dituzte.

Itxuraketari dagokionez, berriz, horretarako teknikak biltzen dituen txosten orokor bat egin beharko dute; gero, antzezle bakoitzerako proiektu bat ere egin beharko dituzte. Azkenik, antzezleak jantzi eta makillatu beharko dituzte antzezenaren egunean.

6.3.3. Antzezleen taldea

Antzerki-joerei buruzko txostenean jasotako joera batzuetan (absurduarenean eta antzerki brechtiarrean) antzezen modu bereziak behar dira. Antzerki errealista konprometituan eta antzerki politikoan, berriz, antzezteko moduak ohikoagoak dira (errealistak). Hala eta guztiz ere, antzezteak ez da inola ere erraza.

Edonola ere, estilo guztietan landu beharrekoak honako hauek dira: beste ezeren gainetik, bokalizazioa; horretaz gain, keinua eta naturaltasuna. Ondo bokalizatzea oso garrantzitsua da, eta ez da nahasi behar oihukatzearekin.

Gomendatzen da pertsonaia etengabe buruan izatea, haren izaerari buruzko oharrak hartzea, pentsatzea nola jokatuko lukeen egoera jakin batzuen aurrean.

6.3.4. Zuzendaritza eta koordinaziorako taldea

Hiru kidez osatuta egongo da, eta bakoitzak zeregin nagusi bat beteko du: koordinazioa, informazioa eta antzezleen zuzendaritza. Talde honen garrantzia erabatekoa da azken emaitzari begira.

Koordinazioaz arduratzen den pertsonak talde guztien proiektuen berri izan behar du; egin beharreko lanetarako epeak zehaztuko ditu; taldeen arteko komunikabide izango da; inoiz ez du galdu behar osotasunaren zentzua; entsegu orokorretako datak programatuko ditu, eta gastuen kontrola eramango du. Agenda bat baliatzea ideia ona da.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Informazioaren ardura duen pertsonak antzezlanaren txostena egin beharko du, beste mota bateko antzerkia egingo duten taldeetan irakurria izateko. Bertan, alderdi teorikoak ez ezik, funtzionamendua eta entseguetako zailtasunak, dekoratu- eta janzkera-taldeen proiektuak, eta antzezlanaren une garrantzitsu baten antzezpena ere jaso beharko dira.

Antzezleen zuzendaritzaz arduratzen denak honako zeregin hauek izango ditu: txosten teorikoa arretaz irakurri eta guztiz ulertzea; antzezlanaren buruz ikasteko epeak zehaztea; antzezle bakoitzak izan ditzakeen zailtasunen jabe izatea; agintekeriari gabe antzezleei ardura eskatzea.

6.3.5. Antzerki-kritikoa

Pertsona bakar batek beteko du zeregin hau. Antzezpenaren kronika egitea izango da haren lana, hasierako prestakizunetatik hasi eta azken antzezpenera arte. Askatasun osoa izango du nahi duen bezala kontatzeko, baina narratzaile kronistaren ikuspuntua hartzea gomendatzen da. Horretarako, ikusi eta entzun dituen gain, talde guztietako kideen gogoetak eta elkarrizketak baliatu ahal izango ditu.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

7. VICTOR MORENOREN LANA

Victor Moreno irakasle nafarrak 1985ean argitaratu zituen eskola mailako ikasleekin lantzeko bere lehen proposamenak, irakurketa-idazketa ardatza oinarri harturik. XX. mendeko korrante asko integratu ditu bere lanetan (surrealistak, Rodari, OULIPO, kontsignak...), egileak hala aitortu ala ez, eta, gaiaren inguruko topiko asko apurtzera etorri den estilo ikonoklasta baliatuz, oso proposamen pertsonalak eraiki ditu.

7.1. *El deseo de leer*

Morenoren lehen liburua *El deseo de leer* (1985) izan zen. Obra hartan, idazketaren bidez irakurketara eraman nahi zituen gazteak (orduko OHoko goi-zikloko ikasleak), Estrukturalismoari oso atxikita zegoen planteamendu batetik. Horretarako, *La isla del doctor Moreau* liburuaren irakurketa adibide gisa jarrita, hiru urratseko programa proposatu zuen, gerora metodologia askotara zabaldu dena: “Irakurri aurretik”, “Irakurri bitartean” eta “Irakurri ondoren”.

Lehenengoan, H.G. Wells-en eleberria irakurtzen hasi baino lehen egin daitezkeen ariketak proposatu zituen, hala nola:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- Idazlearen izena emanda, asmatutako biografia idaztea.
- Idazlearen argazkia ikusita, egilearen deskribapen fisiko-psikologikoa egitea.
- Benetako biografia irakurri ondoren, Wells-en hilobirako epitafioak idaztea.
- Idazlearen bizitza hainbat bertso mota erabiliz kontatzea: aleluiak, limericka, akrostikoa, kaligrama.
- Egilearen datuak asmatzeko igarkizunak edo hieroglifikoak sortzea.

Bigarren atalean, eleberria irakurri bitarteko ariketak proposatzen dira. Hona hemen horietako batzuk:

- Pasarte bateko hitz ezezagunak bilduta, haien esanahiak asmatzea.
- Benetako esanahiekin konparatzea.
- Hitzak kategoriatan sailkatzea: izenak, izenondoak, aditzak, aditzondoak...
- Hitz bateko letrak baliatuz beste hitz batzuk bilatzea.
- Hitzen antonimoak asmatzea, halakorik ez dutenean ere.
- Hitz zerrenda batean, sobran dagoen hitza seinalatzea.
- Bokalen ihesa: bokalik gabeko testu bat berreraikitzea.
- Kontsonanteen ihesa: kontsonanterik gabeko testu bat berreraikitzea.
- Liburuko testu jakin bat luzatzea irakurleek igarri gabe.
- Liburuko testu bat berridaztea erdira ekarriz.
- Liburuko testu batean, esaldi arrotza zein den asmatzea.
- Ingeleseko pasarte baten irudizko itzulpena egitea.
- Liburuko pasarte bat bertsoan ematea.
- Nahasitako elkarrizketa bat berreraikitzea.
- Testu batetik desagertutako hitzak eta esamoldeak bere tokian ipintzea.
- Eleberriko istorioaren laburpena hainbat erregistrotan berridaztea.

Eta, azkenik, irakurri ondoren egin daitezkeen ariketak:

- Irakurritakoari buruzko iritzia lantzeko galdera batzuei erantzutea.
- Narratzaileari buruzko galderak.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- Egiturari buruzko galderak.
- Argumentuari buruzko galderak.
- Irakurritako istorioa komiki bihurtzea.
- Eleberriarentzako hasiera berri bat idaztea.
- Zer gertatuko zen pertsonaien jokabidea desberdina izan balitz.
- Pasarteren bat hirugarren pertsonan idaztea.

7.2. *El deseo de escribir*

Victor Morenok narratiba lantzeko egin zuen hurrengo proposamena *El deseo de escribir* (1994) izan zen. Idazteko hamaika errezeta eskaintzen dituen liburu honek abiapuntu hauek eskatzen zituen: testu laburrak, hasiera harrigarriak, originaltasuna, suspensea eta amaiera harrigarriak.

Idazteko proposamenak gaika antolatuta agertzen dira, eta haurren edo gaztearen ingururik hurbilenarekin erlazionatuta daude: eguneroko objektuak, gauzen jatorria, kanpoko errealitatea, eskola, barruko errealitatea, gure hizkuntza, ipuinak oinarri hartuta idatz daitezkeenak.

Liburuaren tonua zein iturriak aurrekoaren bidetik datoz. Ikus ditzagun proposamenik interesgarrienak atalez atal.

Eguneroko objektuak:

- Objektu bat deskribatzea, ikusten den lehen aldia balitz bezala.
- Ezertarako balio ez duen objekturen baten historia (arkatz kamutsa, borragoma...).
- Zerbait deskribatzea, zentzumenetatik abiatuz.
- Objektuen matxinada: egin behar dutena egiten ez duten gauzak.
- Makinak: zoriontasunarena, ergelkeriarena...

Gauzen jatorria:

- Orraziaren jatorria.
- Bakardadearen jatorria.
- Suaren jatorria.
- Denboraren jatorria.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- Paper higienikoaren jatorria.
- Zoriontasunaren jatorria.

Kanpoko errealitatea:

- Errealitatearen karrikatura egitea.
- Egindako akats bat kontatzea.
- Zer gertatuko litzateke...?
- Mundua alderantziz.
- Asma dezagun herri bat non...

Eskola:

- Jolastorduko bokatari buruzko ipuina.
- Topaketa komunean.
- Hormetako graffitiak.
- Notei buruzko iritzia.
- Eskolako eguneroko subjektiboa.
- Klasean ez aspertzeko jarraibideak.
- Zigorren liburua.

Barruko errealitatea:

- Norberaren jatorria: gurasoen arteko maitasun-istorioa.
- Barne-desira sakon baten kontaketa: nola sortu den, nola garatu den, nola burutu den.
- Ametsak: aste bateko ametsak sistematizatzea, gero narratiboki garatzeko.
- Norberaren biografiako datu bitxiak irudimenez kontatzea.
- Beldurren batetik abiatuta, nola gainditu daitekeen kontatzea.

Gure hizkuntza:

- Hizkuntzaren jatorriari buruzko hipotesi fantastikoak.
- Sinbolismo fonetikoak: soinu jakin bat sarritan erabiltzea nahi den efektua lortzeko (RR: trumoiak; L: jariakortasuna; S, X, Z: irristatzea, xuxurla; eta abar).

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- Akrostikoak: letra bakoitzarekin hasten diren hitzak asmatzea, eta guztiekin istorio bat osatzea.
- Gramatikako kontzeptuak lantzeko talde-jolasak.
- Hitz gutxiko kontalariarena: esaldi atal jakin batzuk falta dituen testuak.
- Queneau-ren *Estilo-ariketak* liburuaren araberrako eraldaketak.
- Menpeko egitura jakin bat errepikatzetik sortutako testua (denborazkoa, baldintzazkoa, kausala).
- Etengabeko konparazioa oinarri duen narrazioa.
- Argazki batetik abiatuta sortutako istorioa.
- Alegiazko herri bateko gidaliburu turistikoa.

Ipuinak oinarri hartuta:

- Ipuinen jatorriari buruzko hipotesi fantastikoa.
- Egunkari surrealista.
- Kontakizun bat idaztea ipuin ezagunetako titulu eta pertsonaien izenekin.
- Ezagutzen diren ipuinak itxuraldatzea.
- Eta gero zer? Ipuin ezagunen jarraipena idaztea.
- Robinsonek Gulliverrekin topo egin zueneko.
- Ipuin politikoki zuzenak idaztea.
- Otsoari epaiketa.

7.3. *El juego poético en la escuela eta Va de poesía*

Poesiaz ere aritu da Victor Moreno. Gaiari emaniko lehen liburua *El juego poético en la escuela* (1989) izan zen. Liburu horren helburua izan zen OHoko goi-zikloko ikasleengan poesiarekiko zaletasuna piztea. Alde batetik, poesiako elementuak lantzeko ariketa libreen bidez. Bestetik, poesiaren arauak lantzeko ariketa itxiagoen bitartez. Interesgarrienen artean, honako hauek ditugu:

- Onomatopeia: nahi denari buruzko poema bat idaztea kontatzen ari denaren onomatopeiak tartekatuz.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- Norbere izena akrostiko moduan jarrita, poema bat osatzea.
- Kontzeptu abstraktuei buruzko poemak: norbaitek kontzeptu abstraktu bat pentsatzen du (bakardadea, askatasuna, tristezia...), eta besteek, zer den jakin gabe, esapide “poetikoak” botatzen dituzte (“ume bakarti bat airean”, “burdinazko erraldoiak”, “egunsentiko doinu alaia”, “aho eta begirik gabeko ilargia”...). Gero, izen abstraktua esanda, harremanetan jarri behar da botatako esapideekin, azkenean poema bat egiteko.
- Egunkarietatik ateratako tituluekin egindako poema.
- Eskelak manipulaturaz sortutako poemak, heriotzari buruzkoak.
- Kaligramak egitea: poemaren formak zerikusi estua du poemaren esanahiarekin.

Hurrengo hamarkadaren amaieran, poesia lantzeko beste monografiko bat argitaratu zuen, *Va de poesía* (1998), aurrekoaren bertsio hobetu eta emendatu modukoa, eta batzuen iritziz idazketaren inguruan argitaratutako guztien arteko onena.

Egitura sendoagoz bereizten dira formari buruzko ariketak (errima, errepika eta aliterazioa) eta zentzuari buruzkoak (ustekabeko hitz-elkarketak, anbiguotasuna, elipsia).

Liburu honetan pisu handiagoa dute arau formalei jarraituz proposatzen diren ariketek, eta horietako batzuk aipatuko ditugu ondoren:

Paralelismo sintaktikoa lantzeko

- Galderetan oinarritutako poemak: eskale batek egindako galderak, etorkizunari buruzko galderak, zentzurik gabeko galderak...
- Menpeko esaldiak errepikatuz sortutako poemak (kausalak, kontzesiboak, erlatiboak, denborazkoak...).
- Limerick delakoaren egituraren arabeko poemak.
- Alfabetoaren arabeko poemak (lerro bakoitzaren hasieran zein barruan).

Poemen forma oinarri hartuta

- Akrostikoak
- Kaligramak

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Osagai poetiko nagusiak

- Sinestesia: zerrenda batean izenak eta bestean izenondoak, modu askotara konbina daitezke, poema batzuk eginez.
- Konparazioa: bi izen zerrendaren aurrean, konparazio posibleak ezartzea, mota guztietakoak.
- Metafora: lehen bezala, bi izen-zerrenda; baina bien arteko loturan ez dago konparazio-terminorik, baizik eta identitate-harremana.
- Gregeriak: pieza horren eskemaren araberako esaerak.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

8. ESPERANZA ORTEGAREN EKARPENA

Literatura-dazketa orokorrari buruzko liburu ezin interesgarriagoa bada ere (Francisco Giner de los Ríos Saria jaso zuen 1984an), poesia lantzeko proposatzen dituen ariketengatik erabaki dugu hona ekartzea. Izan ere, literatura-lantegiei eta irakaslearen zereginari buruzko gogoeta interesgarri batzuk egin ostean, poesiaren idazketari heltzen dio lehenbizi, “Territorio del poema” izeneko atalean.

Poesiaren hiru osagai garrantzitsu lantzeko ariketa motibagarriak eta guztiz egingarriak proposatzen ditu. Hiru osagai horiek paralelismo sintaktikoa, metafora eta antitesia dira.

Gustatzen zait / Ez zait gustatzen

Hasteko, paralelismo sintaktikoa lantzeko ariketa erraz bat proposatzen du, gure beharretarako egin dugun egokitzapenean “Gustatzen zait / Ez zait gustatzen” deitu dioguna. Ikasle bakoitzak gustuko dituen eta gustuko ez dituen gauzen zerrenda egin behar du, egitura gramatikal bera erabiliz. Hurrena, poema eraiki behar du, horretarako aukera batzuk gogoan hartuz: hasieran, “gustatzen zait” guztiak; gero, “ez zait gustatzen” guztiak, eta, azkenik, amaiera; edo “gustatzen zait” eta “ez zait gustatzen” guztiak txandakatuta eta, azkenik, amaiera. Hona hemen gure lantegiko bi emaitza:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

“Gustatzen zait mendiak ikusteko gora begiratzea,
ez zait gustatzen fabriketako kea ikustea.
Gustatzen zait bakarrik egotea,
ez zait batere gustatzen bakardadea.
Gustatzen zait eguzkia,
ez zait gustatzen izerdiaren usaina.
Gustatzen zait iluntasuna,
ez zait gustatzen ezin ikustea.
Gustatzen zait lo egitea,
ez zait gustatzen lotia izatea.
Amets egitea gustatzen zait,
ez zait gustatzen amets gaiztoak izatea.”

“Gustatzen zait goizean goiz etxean sumatzen dudana isiltasuna.
Gustatzen zait irribarre zabal baten distira.
Gustatzen zait besarkada bero baten goxotasuna.
Baina bereziki gustatzen zaidana bizirik nagoela sentitzea da.
Ez zait gustatzen bakardadearen mina.
Ez zait gustatzen gaixo nagoenean sentitzen dudana egonezina.
Ez zait gustatzen leihotik at ikusten dudana euria.
Baina gustatzen ez zaidana tristurak sortzen didan samina da.”

Erruleta txinatarra

Hurrengo ariketaren bidez metafora landuko da, eta aurrekoarekin lotzen saiatuko gara. Hasteko, hurbil dugun pertsona edo animalia bat hartuko dugu gogoan (laguna, ama, katua...). Hurrena, “erruleta txinatar”ari emango diogu hasiera. Gogoan dugun hori ondoko zerrendako bakoitza izango balitz zer izango litzatekeen erabaki behar du ikasle bakoitzak:

- eguneko unea
- lorea

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- kolorea
- animaliak
- urtaroa
- fruitua
- zaporea
- meteorologi fenomenoa

Gero, emaitza bakoitzarekin (poemaren gaiaren metafora horiekin guztiekin) esaldi bat egin behar da, bigarren pertsonan, gogoan dugun horri zuzendua-edo. Azkenean, poema gisa antolatu behar dugu, ahal dela paralelismo sintaktikoa integratuz. Hona hemen adibide bat:

Kanpoko azal gogorra duzu

Zu arratsaldea zara: ilundu baino lehenagoko argitasuna duzu,
baina baita iluntasun-puntu bat ere.

Zu petalorik gabeko bitxilore bat zara: edertasuna du zure itxurak,
baina baita bakardadearen oinazea ere.

Zu tximu bat zara: alde batetik bestera zabilta,
baina badakizu geldirik eta adi egoten ere.

Zu udaberri goiztiarra zara: laster iristen zara nigana,
baina baita berandu joan ere.

Zu besarkada bero bat zara: goxoa eta desiratua,
baina baita beldurrez josia ere.

Zu kiwi bat zara: kanpotik azal gogorra duzu,
baina baita barruko fruitu baliotsua ere, niri gehien gustatzen zaidana.

Proposatutako egitura sintaktikoak nahi besteko konplexutasuna izan dezake. Beste adibide honetan egitura hau proposatu zen: zu zara + erlatiboa + helburuzkoa + horregatik + aditz jokatua. Horra:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Zu zara
nire begietatik ateratzen de distira
nire bidea argitzeko.
Horregatik maite izan zaitut betidanik.

Zu zara
gurtzeko modukoa den gorputza
nire barrenak astintzeko.
Horregatik eskertu ditut zure laztanak bizi.

Zu zara
babesa ematen didan harresia
nire beldurrak saihesteko.
Horregatik eraiki dut gaztelu bat zurekin.

Bertsoen dantza

Ariketa honetan, gai baten inguruko esaldi “poetikoak” idaztea proposatzen da (bakardadeaz, maitasunaz, denboraz...). Ateratzen diren esaldi guztiak arbelean idazten dira, eta gero, taldeka, poema bihurtu behar dituzte. Eskaintzen dugun adibidea “bakardadea” gai hartuta sortu zen:

Jende askoren artean egon arren,
askotan bakarrik sentitzen naiz,
arrano bat bezala zeru zabalean barrena...
Bazter ilun honetan,
neure buruarekin hizketan,
isiltasunak bildu egiten du nire gorputza.
Zu gabe lekuz kanpo nago,
eromenera doan bidean murgildurik.
Bat-batean bakarrik sentitzen naiz,
bakarrik, zure absentziak jota.

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Kontrakoen jolasa

Hirugarrenik, antitesia lantzeko “kontrakoen jolasa” deitutako hau erabil daiteke. Kontrako esanahia duten hitzen bikoteak bilatu behar dira (sua/ura, beroa/hotza, maitasuna/gorrotoa, edertasuna/itsusitasuna, zerua/infernua, argitasuna/iluntasuna, musika/isiltasuna, lagunartea/bakardadea...). Horietako bikote bakoitzarekin, berriro ere, esaldi “poetiko” bat egin behar da, bi hitzak lotuz (“suak urarekin egiten du amets”, “musikak maitasunaren isiltasuna hautsi du”, “beroa egiten du, baina nire arima hotzak dago”...). Amaitzeko, lortutako esaldiak nahi bezala antolatuz, poema osatzen da.

Maitasuna

Isiltasunak musika behar ez duen bezala
zeruak ez du infernurik behar
nik zu behar zaitut
baina maitasunak
fideltasun eza gorrotatzen du
horregatik
ur hotzak gure arteko
su beroa itzaliko du.

Ariketa orokorra

Orain arte ikasitako guztia poema bakar batean integratzea proposatzen da. Horretarako, gai bati buruz aritzea planteatu da gaia bera aipatu gabe. Adibidez, bizikletari buruzko poema bat maiteari zuzendutakoa izango balitz bezala. Hauxe izan da emaitzetako bat:

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Giltzarrapoa

Gustatzen zait zurekin paseatzea,
toki guztietara zurekin joatea,
zure hankak mugiaraztea,
zure gainean eseri eta izerditan hastea.
Ez zait gustatzen nire lagunak zurekin ibiltzea,
ezta zu kale-bazterrean botata uztea.
Nirea zara eta izango zara giltzarrapoa apurtzen didaten artean,
nire bizikleta maitea.

Akrostikoa

Poesia lantzeko baliabide oso erabilia da akrostikoarena. Oraingo honetan, nork bere izenarekin egitea proposatzen da, eta poemaren edukia ere nork bere buruaz duen iritzia izatea. Hona hemen adibide bat:

Lagun ona izanik
Ez du lagunekin arazorik.
Indar handia duela,
Ri-ra horma igotzen duela.
Eskaladan ibiltzen da,
Salto luzeak eginda.
Aspaldian Paula txakurra zuen,
Berarekin gustura bizi baitzen.
Triste dago orain dela gutxi hil zelako,
Erdiko mendian jausi zelako.
Oso triste geratu arren,
Dogo txakurra dauka orain hemen.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Poema bikiaren jolasa

Amaitzeko, bitxikeria bat. Parte-hartzaile adina lerro dituen poema bat aukeratu behar da (jende asko balego, taldeka egin beharko litzateke). Kide bakoitzak lerro desberdin bat falta zaion poemaren bertasio bat jasotzen du, eta aurrean daukan testuinguruaren arabera osatu behar du, nahi duen bezala. Azkenean, poema bikia osatuko da lerro berri guztiak bilduz. Sarrionandiaren poema bat eta ikasleek sortu zuten poema bikia eskaintzen dira:

Inork agintzen ez didalako

Inork agintzen ez didalako

dut maite

maite dudana.

Inork agintzen ez didalako

ditut basamortua eta izarlokak maite.

Itsasontzi noragabeak, gauerdiko biolinak

ilunabarren margoa, xoriño hezurtoen higidura,

sagarrondoetan eskegiriko bihotz horik,

tristura handiegia zaien neskatzak

eta zure irria, zure irria ere

inork agintzen ez didalako

dut maite.

Inork agintzen ez didalako (bertasio bikia)

Bizitzan aske sentitzen naizelako

maite dut

zure begiek sortzen duten distira.


Inork maite ez duena da nik gogoko dudana

egiten dut nahi dudana.

Inork agintzen ez didalako

Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

txiroen hegaldi lasaia haizearen putza

begi eder batzuen distira

eta zure alaitasuna

egunero ikustea eta sentitzea

maite dut laztana.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

9. BIBLIOGRAFIA

- ALVAREZ-NOVOA, C. (1995): *Dramatización. Teatro en el aula*. Bartzelona: Octaedro.
- CALLEJA, S. (1988). *Lecturas animadas*. Bilbo: Mensajero.
- CALLEJA, S. (1992). *Todo está en los cuentos. Propuestas de lectura y escritura*. Bilbo: Mensajero - Deustuko Unibertsitateko HEZI.
- COLECTIVO GRAFEIN (1981). *Teoría y práctica de un taller de escritura*. Madril: Altalena.
- CORZO TORAL, J.L. (1983). *La escritura colectiva (teoría y práctica de la escuela de Barbiana)*. Madril: Anaya.
- DELMIRO COTO, B. (1994). “Los talleres literarios (historia y propuestas)”, in LOMAS, C. *La enseñanza de la lengua y el aprendizaje de la comunicación*. Gijón: Trea/CEP.
- DELMIRO COTO, B. (2002). *La escritura creativa en las aulas. En torno a los talleres literarios*. Bartzelona: Graó.
- EQUIPO CODA (1988). *Creatividad teatral*. Madril: Breda.
- FIDALGO FERNANDEZ, S. (1995). “Actividades en el Aula-Taller de Literatura”, *Textos de Didáctica de la lengua y la literatura*, 4, 67-74.
- GONZALEZ DARDER eta beste (1995). *Expresión escrita*. Madril: Breda.
- GONZALEZ NIETO, L. (1992). “La literatura en la educación secundaria”, in SIGNOS. *Teoría y práctica de la educación*, 7. zk.
- GUERRERO RUIZ, P.; LOPEZ VALERO, A. (1993): *El taller de lengua y literatura (cien propuestas experimentales)*. Madril: Bruño.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

- LACAU, M.H. (1966). *Didáctica de la lectura creadora*. Buenos Aires: Kapelusz.
- LOTMAN, Y.M. (1970). *Estructura del texto artístico*. Madril: Istmo.
- MONTES, F. (2008). *Taller de escritura. 1303 ejercicios de creación literaria*.
Kordoba: Berenice.
- MORENO, V. (1985). *El deseo de leer*. Iruñea: Pamiela.
- MORENO, V. (1989). *El juego poético en la escuela*. Iruñea: Pamiela.
- MORENO, V. (1994). *El deseo de escribir*. Iruñea: Pamiela.
- MORENO, V. (1998). *Va de poesía*. Iruñea: Pamiela.
- MUÑOZ, M. (1983). *La poesía y el cuento en la escuela*. Madril: Consejería de
Educación y Juventud de la Comunidad de Madrid.
- ONAINDIA, S. (1975). *Euskal literatura IV. Ogeigarren mendea*. Bilbo: Etor.
- ORTEGA, E. (1986). *El baúl volador (Un taller de Literatura en el Bachillerato)*.
Zamora: Junta de Castilla y León.
- PENNAC, D. (1993). *Como una novela*. Bartzelona: Anagrama.
- QUENEAU, R. (1987). *Ejercicios de estilo*. Madril: Cátedra.
- RINCON, F. eta SANCHEZ-ENCISO, J. (1986). *El alfar de poesía*. Madril: Teide.
- RINCON, F. eta SANCHEZ-ENCISO, J. (1986). *El taller de la novela*. Madril: Teide.
- RINCON, F. eta SANCHEZ-ENCISO, J. (1986). *La fábrica del teatro*. Madril: Teide.
- RINCON, F. eta SANCHEZ-ENCISO, J. (1987). *Enseñar literatura*. Bartzelona: Laia.
- SANCHEZ-ENCISO, J. eta RINCON, F. (1988). *Los talleres literarios. Una
alternativa didáctica al historicismo*. Bartzelona: Montesinos.
- TARRES, M. (1989). *Taller de escritura*. Madril: MEC.
- VARGAS LLOSA, M. (1997). *Cartas a un joven novelista*. Barcelona: Plan.
- ZENBAITEN ARTEAN (1987). *Sobre literatura potencial*. Vitoria-Gasteiz: Euskal
Herriko Unibertsitatea.
- ZENBAITEN ARTEAN (1990). *La creación lectora. Propuestas y Experiencias*. Bilbo:
Colegio Oficial de Doctores y Licenciados en Filosofía y Letras en Ciencias de
Bizkaia.
- ZENBAITEN ARTEAN (2002). “Monografía: Imitar, plagiar, crear”, *Textos de
Didáctica de la Lengua y de la Literatura*, 30, 5-83.